


WILDE TAŖ OŠKAB

IPUINĀS

ALTUNA TAŖ JOSEBA'K EIZKERAUDITA



LAURENTIJA TAŖ ANDRĒN VANDERLĀN

WILLIS TOWERS WATSON

A.T.V.
1355

M-4884
R-1275

A.T.V.
1355



WILDE'TAR OSKAR

IPUÑAK

Altuna'tar Joseba'k euzkeralduta

Jauregibetia'tar Ander'en idantzekijak




Bilbao'n MCMXXVII

Verdes-Atxirika'ren Irarkolan

1.927'gko Dagonila-9'an Gazteiz'ko
Gotzañak baimena eman euskun
idazti au argialduteko.

BILABIDIA

IRAKURLE EUZKELDUNARI	5
BAKALDUNGAI ZORIJONTSUBA	7
URËTXINĎOĀ TA LAĀOSA	29
EĀRALDOI BEREKOYA	41
BENETAKO ADIZKIDIA	53
ZIZIRIKO OSPETSUBA.	71
UME IXAĀA	87



IRAKURLE EUZKELDUNARI

Wilde'taŕ Oskar idazle ospetsubaren ipuin batzukaz txorta bat egin eta ona natofkixu, zeuri eskintzen.

Ipuñok mamintsubak dira, irakaste andikuak. Eurok irakulten ordu asko igazi edo pasau yataz atsegiñez.

¿Zeuri be atsegin ixango ete-yatzuz?

Dana-dala, gure Ama Euzkereari opari txiki au egin gura ixan dautsot, ofen bíaŕa, ¡bíaŕ andija gero!, daukolako.

Euzkeraz ikasten dabilan mutil zintzo batek, Jaur-egibeitia'taŕ Ander'ak, egin dauz idazti onetan ikusiko dozuzan idantzezkiak, idantzezki politak.

Onek be zeozer opaldu gura ixan dautso gure Euzkera maŕagafijari.

EUZKERALTZALIA.

Bilbao'n, 1927'gko. Epala'n.

1871

1. The first of the year was a very cold one, and the snow lay on the ground for several weeks. The weather was very disagreeable, and the people were much distressed.

2. The second of the year was a very warm one, and the snow melted. The weather was very pleasant, and the people were much pleased.

3. The third of the year was a very cold one, and the snow lay on the ground for several weeks. The weather was very disagreeable, and the people were much distressed.

4. The fourth of the year was a very warm one, and the snow melted. The weather was very pleasant, and the people were much pleased.

5. The fifth of the year was a very cold one, and the snow lay on the ground for several weeks. The weather was very disagreeable, and the people were much distressed.

6. The sixth of the year was a very warm one, and the snow melted. The weather was very pleasant, and the people were much pleased.

7. The seventh of the year was a very cold one, and the snow lay on the ground for several weeks. The weather was very disagreeable, and the people were much distressed.


8. The eighth of the year was a very warm one, and the snow melted. The weather was very pleasant, and the people were much pleased.

9. The ninth of the year was a very cold one, and the snow lay on the ground for several weeks. The weather was very disagreeable, and the people were much distressed.

10. The tenth of the year was a very warm one, and the snow melted. The weather was very pleasant, and the people were much pleased.

BAKALDUNGAI

ZORIJONTSUBA





RI-GANETIK, afimeta andijan jarita, Bakaldungai (Principe) Zorijontsubaren irudija agiri zan.

Irudi au ufeztauta eguan, ufezko azalakin apainduta.

Bere begijak ikatzafi urdin (zafiro) dizdiratsu bi ziran. Ezpata-mutuñian ikatzafi gofi (rubi) bat eukon.

Gusti au zala-ta, bertotar ta kanpotafak, berari begira, gelduten (mirarifuten) ziran.

—Axe-oratza baxen edera da —buruba jakifuntzat eukon uriko ziñegotzi (kontzekal) batek esaten eban—. Baña ezta ain biaezkua.

—¿Zegafik ez-ete-az Bakaldungai Zorijontsuba-lakua? —ilargija atrapau gura ebala-ta negafez eguan umetxu bati amak ifanduten eutson—. Bakaldungai Zorijontsubak etxok sekula be negafik egiten.

—Pozkafija da, ixan be, ludijon (mundu onetan) zorijontsurik ikustia — Bakaldungayaren irudija ikusita, zorigaiztoko batek esan eban.

—Gotzonen (aingeruben) antzekua da gure Bakaldungaya —bein esan eben, txadonetik (elexatik) urte-tian, ikastolako umiak, zuri-gofiz polito jantzita ego-zanak.

—¿Zetan, baña, igaiten dozube ori, gotzonik ez-tozube iñoiz ikusi-ta?—irakasliak ifandu (preguntau) eutsen.

—Geuk safi amesetan gotzonak ikusi daruaguz — umiak erantzun eben.

Eta irakasliak, ori entzunda, arpegi iluna ipiñi eban, umien esanai txafto cristen eutselako.



Gau baten elai txiki bat, egaizka, urira eldu zan.
Egun batzuk lenago lagunak Egipto'rantz abijau ziran.

Baña elai au atzian lotu zan, inge (kañabera) bati mañasun sutsuba aitu eutsolako.

Udabarijan aurkitu (topau) ta ezautu eban inge ori.

Kañaberea itxura onekua zan-eta, beragaz itz-egi-
teko asmuaz elaya uferatu yakon.

—Nai-ta-ez mafe bialko zaitut, ¿ezta? —gure txori-jak esan eutson.

Eta ingiak, bayetz esateko, buruba makuitu eban.

Elaya, orduban, inguruban asi yakon egaizka, ol-getako goguaz. Kañabera-ondoko eferakako ura egala-kin ukutu ta zidarezko lefuak egiten ebazan. Ofetara erakusten eutson beraganako mañasuna.

Egunak juan egunak etofi, udea igazi edo pasau zan.

—Bafegarija da gure lagun ofi jazoten (pasetan) yakona —beste elayak alkafi esaten eutsoen—. Kaña-

bera ori txiro-txirua da: lauzikorik ez-ei-dauko. Bañiz, sendi (pamili) ugarija bai...

Zuzen egozan elayok, lats (efeka) gustija ingez (kañabera)z) beterik eguan-eta.

* * *

Udagoyena elduta, elai gustijak iges-egin eben.

Bai, ba, otza asi zan-eta, Apirka'rako bidia artu eben.

Gure elayak orduban buruba ikusi eban bakaf -bakafik. Eta kañabereagaz aspertuten asi zan.

—Inge onek etxok iñoiz itzik egiñen —kolkorako esaten eban—. Eta bildur nok aldakofa ete-duan, axiari beti buruba makurtuten yautsok-eta.

Egija zan ori. Axerik ebiñanetan, ingiak gerifik makurtu ta buruba erasten eban.

—Beti yagok toki berberan —elayok barurako egiñen eban—. Eta niri, bañiz, alde batetik bestera ibiltia atsegin yatak. Orixe duala-ta, ni mañeko naunak ibiltarija ixan bialko yok...

—¿Nire atzetik etofi gura dozu? —ingiari ifandu (preguntatu) eutson.

Bañia ingiak buruba makur-makur egin eta lufa jo eban.

Oñegaz adirazo gura eutson, lufari itxasita (lotuta) eguala ta ezin ebalat bertotik alderik egin.

—¿Ezetx diñozu? Nire lepotik bafe-egiñen egon

zayataz, ¿ezta? —elayak, minduta, esan eutson—. Egipto'ra juango naz, ba. ¡Aguf!

Eta, gora ta gora, egaizka asi zan.

* * *

Egun gustijan egaiz ta egaiz, iluntzirako urira eldu zan.

—Gaberako atepia ¿nun afayo topauko ete-yuat? —burubari ifandu eutson—. Nik uste nayuan uri onetako biztanliak abegi ona egingo yeustela. Baña eztok olan ixan.

Ori esan eta arimeta-ganian eguan gixa-irudija ikusi eban.

—Ara zuzenduko nok—kolkuari egin eutson—. Toki ori poliña dok saftu ta eskutetako. Eta axia aitzeko be, alagalakua.

Esan eta egin. Egaizkada baten Bakaldungai Zorijondunaren oñetara eldu zan.

—¡Tirok, bal Urezko etxia yaukat —alde gustijetara begiratuta gero esan eban.

Eta lotarako gertau (prestu) zan.

Baña egal-azpijan buruba eskutau ta ur-tanta bat jausi yakon.

—¡Auxe dok bafegafija! —burubari egin eutson—. Ortzian (zeruban) odeirik etxagok, ixaf argijak baño. Oñatiño, baña, euriña eztok, ba! ¡Olakorik!...

Ori esan eta beste tanta bat jausi yakon.

—¿Zetarako ixango ete-dok gixa-irudi au, atertu-

teko baño—elayak esan eban—. Emen bustitēn nok-eta, beste leku batera jo biafko yuat.

Eta egaiz-egiteko asmua aftu eban.

Baña egalak zabaldu baño len, beste tanta bat jausi yakon ganera.

Eta gora begiratu ta ikusi eban...

¿Zer ikusi ete-eban?

Bakaldungayak begijak malkoz beterik eukozan. Eta matrāla-ziaf negaf-anpulubak jausten yakozan.

Bakaldungayaren irudijak, ilargijak argituta, arpegi edera eukon. Eta elaya, berau ikusita, efukitu zan.

—¿Nor ete-zara zeu?—gure txorijak esan eutson.

—Bakaldungai Zorijontsuba naz.

—Ofezkero, ¿zer dala-ta negarik egiten dozu? Malkuakin burutik ofetara bustitēn nozula eztakixu, ala?

—Biztokijan (munduban) nengualarik eta aragizko bijotza neukonian—irudijak erantzun eutson—malkuak zer ziran enekijan, *Ardurabako Jauregijan* bixi nintzalako. Eta jauregi onetara etxako miñari saitzen isten. Egunez, lagunakin baratzian jolastuten (olgetan) ibiltēn nintzan. Eta gabez, areto (saloi) andijan, dantza ta dantza egiten neban. Baratz-inguruban ari-esi andija ta sendua eguan. Baña eneban sekulan be jakin gura ixan, afesi-ostian bixi ziranen bari. Alde gustijetan gauza ederafak baño enebazan ikusten. Jauregiko zaldun eta motoyak *Bakaldungai Zorijontsuba* eristen eusten. Eta benetan zorijontsuba nintzan, atsegiña zorijona ba-da. Ofetara bixi ixanda, ofetara il biaf. Eta ilda gero, goi-gora jaso (altzau) ninduben, uriko gauza negarfarijak eta lagun txiruak (euki-ezak) ikusi al

-ixateko moduban. Eta ordutik ona, berunezko bijotza euki-añen, negaía baño besterik eztot egiten.

—¿Zer yñok, baña? ¿Bijotza be etxaukok ufez eginda, ala?—elayak kolkorako egin eban. (Gure txor-ija, bañitsu-samaía ixan-añen, azikera (edukaziño) onekua zan, ¿bai?, ta etzan azaftu Bakaldungayari ori esaten).

—An, beyan —gixairudijak jaía eban, astiro ta leun— txaide (kale) estu baten, etxe zaía ta zikiña dago. Leyua zabalik dauko. Andera bat dakust, mai-onduan jesaíia. Arpegi zurbil-zimela dauko, ta esku-bak, esku goíi ta latzak, minduta. Bai, ba, jostora-tzari egunez ta gabez ekin blaíko dautso-ta... Andera ori joslia (joskilia) da. Orain janzki polia josten diñar-du, Bakaldunaren jauregijan (Eregiaren etxian) uñen-go egunen baten egongo dan dantzara batobatek cruateko. Gelako bazteí baten oe bat dago. Oian semetxuba gexorik datza. Sukaf (bero) andija dauko ta ufesagafak (laranjak) eskatzen dauz. Baña amak ezin besterik emon, eíekako ura baño. Orixe dala-ta, umiak negaf-egiten dau. Ene elai, ene elai matia: ¿eruango ete-zeunskio nire ezpataren ikatzaíi goíija? Oñak untziakin lotuta daukodaz, ¿bai?, ta ezin neuk eruan.

—Lagunak Egipto'n nire begira daukodaz —txorijak erantzun eutson—. Egaizka ibiliko dira onezkero Nilo-ganian. Eta ibai onetako ertzetan dagozan landara ta lorakin baíketan jardungo dabe. Uñan, lasteí juango dira, lo-egiten, Bakaldun (Eíege) Andijaren ilobira. An datza Bakaldunoi zefaldo (kutxa) baten, eun (trapu) ori bategaz estalduta. Usain edeíez inguratuta dago.

Lepuan estuntzea (katia) dauko. Eta bere eskubak orbelak-lakuak dira.

—Ene elai, ene elai laztana —Bakaldungayak esan eutson—. ¿Gaufko gabian baño ezpa-zan be, ez-ete -ziñian emen neugaz geratuko? Nire geznarija (mensajerua) ixango zintzakez. ¡Len esandako umia egafi andija da-ta, ama itun (triste) dago!

—Bai, baña ni enaz ume-zalia —elayak esan eutson—. Igazko udan, eřeka-aldian bixi nintzalarik, lotsa-galduko ume bi egozan bertan. Eřotarijaren semiak ziran. Eta gau ta egun afika-egiñen eusten. ¡Baña zelan egin gero! Zorijonez, ezeusten apararik egin, bestelan... Geuk, elayok, biar dan baño obeto egiñen ei-dogu egaiz. Ganera, nire sendija (pamiliya) entzute andikua ixan da beti, iñok baño ariñago jakin daulako egaiz-egiñen. Baña dana-dala, lotsa geyago ixan biarfo eusten zoritxafeke umiok.

Bakaldungai Zorijondunak begirada ifuna (tristia) bola eutson. Eta elai bafitsuba eřukiñu zan.

—Emen otz andija dago —txorijak esan eban—. Baña gauf gabian zeugaz lotuko naz bertan, geznaririk (mensajerorik) euki dagixun.

—Eskafik asko, elai zintzua —Bakaldungayak erantzun eutson.

Elaya, Bakaldungayaren ezpatatik ikatzafi gořija ařtu ta goruntz abijau zan. Txadoneko (elexako) kanpantofetik igaro (pasau) zan, afizko gotzon (aingeru) politak eukozan txadonetik. Bakaldunaren jauregitik be igaro zan, eta dantzarako soñu bikaña entzun eban. Une atan, neskatiřa lirain bat, senařgayagaz jauregiko leyora urten zan.

—¡Ófek dira ixaf edefak! —mutilak esan eutson, gora begiratuta—. ¡Eta mañasuna ezer baño indartsu-bagua da!

—Nik uste dot —neskatilak erantzun eban— jantzi bañija prest eukiko dodala ufengo dantzaldirako. Jantzki dotore ta apainduba egin gura neuke. ¡Baña josliak alpeñak dira-ta...! ¡Zorijoneko josliok!

Egaiz ta egaiz, elayak portu-ganetik igaro ta ontzi-jetako tantayetan argijak ikusi euzan.

Judatañen auzotik igaro zanian, ikusi ebazan salokari zañak eta malmutzak arazuak atonduten eta ufezko ta zidañezko txindijak zenbatuten (kontetan).

Ibili ta ibili, etxe loi-zañera eldu ta bafurantz begiratu eban.

Umia, beruaren berroz, arñerik añtu-eziñik, batera ta bestera, oian eñilan. Amari nekiak lo-eragin eutson.

Elayak gelara sañtu ta ikatzañi goñija mai-ganian, joskiliaren tñfara-onduan, itxi eban.

Gero egaizka asi zan oe-inguruban, egalakin umi-ari axia emonaz.

—¡Auxe da ozkifi atsegingañija! —mutikuak esan eban—. Itxuraz, len baño obeto nago

Eta luak, lo gozuak, añtu eban.

Elaya Bakaldungai Zorijondunagana atzera juan zan. Eta ibiltaldijan ikusi eban gustija esan eutson.

—Bañegañija da au, ixan be —txorijak esan eban—. Esango neuke bero nazala, uri onetan otz andija egon-añen.

—Ori da egiñe ona egin dozulako —Bakaldungayak erantzun eutson.



Elaya órétzaz oldoztuten (órén gañian pentsetan) asi ta lotan geratu zan.

Orixe jazoten yakon beti: oldoztuten asi-orduko luak arapau.

* * *

Eguna zabaldu zanian, bijaramonian, ibaira juan zan gure txorija, soña bustifen.

—¡Auxe dok zera, bakana! —ibai-ganeko zubifik igaroten zan irakasle batek kolkorako esan eban—. ¡Elairik neguban!

Eta orixe zala-ta idazkaya egin eta bertoko izpar-ingi (periodiku) bati bidaldu eutson.

Egun batzutan, izparingijak esaten ebana irakurita, elaya egon zan uritar gustijen autubetan.

—Gauf gabian Egipto'rantz abijau biafko yuat —burubari esaten eutson.

Uriko toki ta gauza ikuskafi gustijak ikusi ta kan-pantofera juan zan, atsedena (deskantsua) aftzen.

Bertoko ormatxorijak, berau ikusita, alkafi esaten eutsoen:

—¡Bestelako bidezti dotoria!

Eta elaya, ori entzunaz, aropuztuten zan.

Ilargija agertu zanian, Bakaldungayagana zuzendu zan gure txorija.

—¿Egipto'rako ezer bial ete-dozu? Lastef zuzen-duko naz bertara.

—Ene elai, ene elai matia —Bakaldungayak esan eutson—. ¿Etzara beste gau baten neugaz geratuko, ala?

—Egipto'n lagunak niri itxaroten dagokidaz. Bijaf txufustetara (kataratetara) juango dira, ufian. Inge (kañabera)-aftian hipopotamo andijak lo dagoz. Eta afizko bakaulkijan jesafita aurkitzen dan Memnon jaungixuna, gau gustijan ixafai begira egoten da. Goxeko ixafak argi-egiten daunian ifintzi zolija botaten dau. Eguberdijan lunak (leoyak) efeka-aldera jasten dira, ura edaten. Begi oflegijak daukez, ta euron ofubak bildufagafijaguak dira txufusten mafumak baño.

—Ene elai, ene elai laztana —Bakaldungayak esan eban—, an bian, uriko beste aldian, mutil bat dakust (ikusten dot) ganbara ilunian. Ingiz (papelez) beteriko mai baten onduan dago, buruba makuf-makuf eginda. Lorontzi baten lora batzuk daukoz, ija zimelduta. Ulia baltza, ezpanak kerexak baxen gofijak eta begijak andijak eta ameslarijak daukoz. Antzokirako idazten (teaturako eskribitzen) deragoyo. Baña otz andija da -ta, ezin ezer egin. Etxian surik eztauko ta gosiak ilik dago.

—¡Tira, ba! Beste gau baten be zeugaz geratuko naz —esan eutson bijotz oneko elayak—. Beste ikatzafi gofirik eruan bialko dautsot, ¿ezta?

—¡Oi ene! Beste ikatzafi gofirik eztaukot. Begijak baño etxataz geratu. Ikatzafi oztiñak (azulak) dira, bakanak, orain anei (mila) urte India-aldetik ekarijak. Eurotarik bat aftu, ¿bai?, ta eruan egijozu mutil ofi. Beriala salduta, egufa ta ogija erosiko dauz. Eta antzokirako lana amatu al-ixango dau.

—Ene lagun mafia —elayak erantzun eutson—. Ezin neuk olakorik egin.

Eta negafez asi zan.

—Ene elai, ene elai zintzua. Egixu, Jaungoikuafen, eskatzen dautzudana.

Elayak, orduban, Bakaldungayaren begi bat artu ta mutil gaxuaren etxerantz egin eban egaiz.

Bertara saitzia etzan gauza gaxa. Egastijan (tela-tuban) eguan zulotik, bizko-bizko saftu zan gure txorija.

Mutilak esku-artian buruba eukon, ukonduak mai-ganian ezañia. Orixe zala-ta, ezaban ezer entzun, ez ikusi.

Gerotxubago, buruba jaso (altzau) ebanian, lora zimelduben ganian ikatzafi oztiña ikusi eban.

—¡Nozonoz! Nire gauzak aintzat artzen asi dozak, itxuraz —kolkorako esan eban—. Pitxi au etofiko zuan, nire lanak begi onez ikusten yuazan aberatsen bate-gandik. Orezkero nasai ta pozik amañuko yuat biñia.

Une atan gustiz zorijontsuba zan gure mutila.

* * *

Bijaramonian elayak porturantz egin eban. Ixontzi (bapof) andi baten tantai-ganian jañi ta bertoko gixonak egiten ebezan lanak ikusten egon zan.

—Ba-nua neu Egipto'ra —esan eutsen txori bafit-subak.

Baña itxas-gixonok jaramonik ez.

Ilargija agertu zanian, juañ zan atzera Bakaldungai Zorijontsubagana.

—Aguf-egiten natoñkixu —beroni esan eutson.

—Ene elai, ene elai maña. ¿Beste gau baten ez-ete-zintzakez neugaz geratuko?

—Onezkero neguba da, ¿bai?, ta laster elduko da edufa. Egipto'n eguzkijak berotzen dauz palmondo ta ostantzeko zugatzak. Eta kokodriluak, basa-aftian nasai-nasai etzunda, alde gustijetara begirutzen dabe. Nire lagunak abijak egiten dabez Baalbek'en txadonan. Eta uso zurijak alkafi ufuma-egiten dautsoe. Bakaldungai maña: nai-ta-ez laga bialko zaitut. Baña enaz zeugaz inoiz be aitzuko. Eta datoñen udabafijan ekafiko dautzudaz andik ikatzafi edeñ bi, emon dozuzanen orde (truke). Bata gorija ta oztifña bestia. Ikatzañi gorija lafosa gorija baño gorijagua ixango da. Eta ikatzafi oztifña, zeruba baxen oztifña.

—An, beko azokan (merkatuban) —Bakaldungayak esan eban— neskato bat dago, ařastak (pospoluak) saltzen. Ařastok lupetz-ařtera jausi ta ondatu yakoz. Amak astinduko dau, txindirik (dirurik) ezpa-daruatso. Orixe dala-ta negař ta negař-egiten dau. Kotadak eztauko oskirik (zapatarik), ez galtzarik. Eta burutzik dago. Beste begija atara egistazu ta emon egijozu berari, amak jo eztagijan.

—¡Tira, ba! Beste gau baten be zeugaz lotuko naz emen —elayak esan eutson—. Baña eztautzut beste begirik atarako, gustiz itxu geratuko zintzakez-ta.

—Ene elai, ene elai laztana. Egixu, ařen, eskatzen dautzudana.

Elaya, orduban, Bakaldungayaren bigafen begija ařtu ta egaizka juan zan. Neskatuaren sorbalda-ganian jařita, ikatzafiya eskubetara jaurti eutson.

—¡Auxe don leyař (kristal) polita! —neskatilak

esan eban berau ikusita. Eta bareka ta ariñeketan etxera zuzendu zan.

Elayak atzera-egin eban Bakaldungayagana.

—Orain itxu zagoz-ta —oni esan eutson— zeugaz lotuko naz betiko. Itxura negarñafi ofetan etzaitut laga gura.

—Ez, elai kutuna —Bakaldungayak erantzun eban— Zuaz, zuaz Egipto'ra, lagunakana.

—Enaz juango, ez. Zeugaz geratuko naz betiko —txorijak beñesan eutson.

Eta Bakaldungayaren ofetan etzunda, luak artu eban.

* * *

Bijaramonian, Bakaldungayaren sorbalda-ganian jafi ta edestu (esan) eutson, ufutiko luñaldietan ikusita eukon gustija.

Elayaren esanaz, ibis gorijak aldeñezkan jafñen dira Nilo'ko alde bijetan. Eta mokuakin (pikuakin) urñe margua (koloria) dauken aranak (okaranak) arapetan dabez. Andere-luna (Esfinge) zaña, ludija baxen zaña dana, lekaruan (basamortuban) bixi da, ta gustiz jakituna ei-da. Saloskarijak (salerosliak) astiro-astiro dabiltz, gabelu-onduan. Eta sañi eskubetan anbarezko agutñzak (efosarijuak) daruez. Ilargijaren Mendijetako Bakalduna, baltz-baltza da, ta leyañ (kristal) bati gurpena (adoraziñua) egiten dautso. Sugetzañ oflegijak (berdiak) palmonduan lo-egiten dau. Beroni ogei abadek jaten emoten dautsoez eztiz egindako gozuak.

Kokuak aintzira-ziaf ibilten dira, ofi ta bedaf-ganetan mitxeletai buruka-egiten.

—Ene elai, ene elai matia —Bakaldungayak esan eutson—. Gauza ikuskari-ikaragafijak edestu daustazuz. Baña ikaragafijagua da mundu onetan gixonak jasaten (sufritzen) dabena. Zuaz uri-ziaf, txori laztana, ta ikusten dozuna esan egistazu gero.

* * *

Elaya uri-ziaf, egaizka, juan zan.

Eta ikusi eban, aberatsak jai andijak egiten ebeza-la, eskaliak ogi-eske, atia joten eben bitartian.

Kale estu ta ilunetarik juan zan. Eta eufez ikusi ebazan arpegi zurbildun umiak, gosez ilten ziranak.

Zubi baten azpijan mutiko bi egozan, etzunda, bata bestiaren besuetan, berua alkafi emoteko moduban.

—¿Zegaz asetuko ete-genduban geuk daukogun gosia? —bijok batera esaten eben.

—¡Alde emetik! —txiñelak agindu eutsen, makila bategaz zartada gogoña emonaz.

Eta alde-egin bial ixan eben.

Euri ja zan-eta, burutik oñetaraño busti ziran.

Elayak, Bakaldungayagana atzera etori ta ikusi ebana edestu eutson.

—Bakixu uñegoriz apainduta nagola, ¿ezta? —elayari esan eutson—. Azal gustija kendu ta uriko eskekuai emon egijezu, ba. Gixonak beti uste ixan dau uñegofijak zorijona dakafela.

Pizka-pizkaka, uñe-azal gustija eratsi eutson.

Afezkero, Bakaldungayak ezeukon edertasunik,
ez ezer.

Gure txorijak ufe-azalok banandu ebazan eskekuen
aftian. Eta lengo umien arpegijak poztu ta argitu ziran.

Eta saltoka ta bareka kale-ziaŕ joyazan.

—¡Baukogu orain ogija zegaz erosi! —oyuka esa-
ten eben.

* * *

Lenengo, edurá.

Eduŕaren ostez, leya eldu zan.

Uriko txaidiak zidafezkuak irudijen, dizdiz-egiten
eben-eta.

Etxietaŕo egaletatik, dingilizka, ormakizki luziak
eta aiztuak (kutxiluak) baxen zoŕotzak agiri ziran.

Uriŕafak nafuzko soñekuak jantzten ebezan.

Umiak, txano goŕijak buruban jantzita, lei-ganera
juaten ziran, laŕapast-egiten.

Elai gaxua otz zan, geruago otzago.

Baña ezeban nai Bakaldungaya laga, bijotzez maŕe
ebalako.

Okiñaren (ogigiñaren) etxeko atian ogi-apuŕak ja-
ten ebazan, gixon onek ikusten ezebanetan. Eta egi-
ñalak egiten euzan, egalai eraginda, gorputza bero-
tzeko.

Baña egunak juan egunak etofi, il biaŕko zala igafi
eban. Bakaldungayaren sorbalda-ganera nekez elduta,
beroni esan eutson:

—¡Aguŕ, lagun matia! ¿Eskuban mosurik egiten
itxiko ete-zeunstan?

—¿Zer, ba? ¿Egipto'ra zuaz, ala? Orduba da ofetar-ako. Biat dan baño luzaruago egon zara emen. Mosu-ba ezpanetan emon egistazu, asko mate zaitut-eta.

—Enua Egipto'ra, ez —elayak erantzun eutson—. Erijotzaren etxera nua. Erijotza luaren ama da, ¿ezta?

Orixe esanda, Bakaldungayari ezpanetan mosu egin eta bere ofetara, ilotzik, jausi zan.

Une atan bertan, kařask-egin eban Bakaldungayar-en irudijak, bafuban ezer zatitu bai'litzan.

Eta egija zan. Bakaldungayaren berunezko bijotza erdibituta eguan.

* * *

Ufengo goxian uriko zelai-ziař endoria ta ziřnegotzizak (alkatia ta kontzekalak) igaro ziran.

Ařimetara elduta, endoriak irudirantz begijak jaso (altzau) ebazan.

—¡Ene bada-ta! —esan eban—. ¡Bakaldungai Zori-jontsubak dauko itxura bařegafija!

—¡Gustiz bařegafija! —ziřnegotzizak, batera, eran-tzun eben, endoriaren ustia euron ustia beti ixaten zan-eta.

Danok igon ziran gixairudija ondo ikusten.

—Ezpataren ikatzari gořija jausi yako, ta begirik, ez uře-azalik eztauko —endoriak esan eban—. Dana batera esateko, eskekua dirudi.

—¡Ben-benetan eskekua! —ziřnegotzi gustijak, ao batez, erantzun eben.

—Eta bere ofetan txori bat dago ilda —endoriak

jañai eban—. Agindu bafija emon bialko dogu, ona
iltera etof ten txorijoi galerazoteko.

Udalaren idazkarijak (Ayuntamentubaren sekretari-
juak) ontzat aftu eban endoriaren esana.

* * *

Gerotxubago agindu eben Bakaldungai Zorijondu-
naren irudija lufera erasteko.

—Orain ezta ikuskarija ta, ezta ezetarako gauza
—irakasliak esan eban eskolan.

Irudija urte eben.

Eta endoriak ziñegotzijai batzafera dei-egin eutsen,
burdin aregaz zer egingo ete-eben erabagiteko.

—Beste irudi bat egin leike —endoriak esan eban—.
Niria, esate baterako.

—Edo neuria —ziñegotzi bakotxak esan eban.

Eta eztabaidan asi ziran.

—¡Auxe da gauza bakana! —irudija urtu ebanak
esan eban—. Berunezko bijotz au ezin urtu, ezelan
bez. Saztegira bota bialko dogu.

Eta elai ila lendik eguan saztegira, bijotza bota
eben.

* * *


Ekañi egistazuz uritik, zure ustez onenak diran
gauza bijok —Goiko Jaunak gotzon (aingeru) bati
esan eutson.

Eta gotzonak berunezko bijotza ta elai ila eruan eutsozan.

—Zuzen egon zara —Urtzi'k aingerubari esan eutson—. Paradisuban egazti onek beti abesten (kanten) iñardungo dau, ta Bakaldungai Zorijontsuba aintzaz (glorijaz) beterik bixiko da.



U'ETXINDOĀ TA LAĀOSA





EUGAZ dantza-egingo leukela lafosa gofirik emongo ba'neutso, esan eustan lengo egunian —mutil gastiak esan eban—. Baña, jau da lofa!, baratzian eztaukot lafosa gofirik.

Zugatz-adafetan eukon abirik ufetxindofak entzun eban ori. Eta ori-artetik begiratuta, geldu (miraritu) zan.

—¡Lafosa gofirik ez! —mutiak bebesan eban. Eta begijak malkoz beteten yakozan—. ¿Nok esango ete -eban olako gauza txikijetatik zorijona edo zoritxafa etofi leikenik? Jakitunak idatzi daben gustija irakurita daukot. Pilosopijak berak be eztauko niretzako ixilekorik. Oñatiño, baña, lafosa gofirik eztaukot-eta, zorigaiztokua naz.

—Ona emen benetako mafalarija —ufetxindofak esan eban—. Gabian-gabian goralduten neban mafalari au, arpegiz ezautzen eneban-afen. Gabian-gabian bere edestija (istorija) ixafai edestuten neutsen. Eta orain, bat-batez, nire mafalarija ikusten dot. Ulia iluna dauko, ta ezpanak gofijak, gura daun lafosa baxen gofijak. Mafasunak, baña, arpegija zurbildu ta itunak (tristezak) bekokijan lofatza ezafi dautso.

—Bakaldunak bijaf gaberako dantza polita gertau

dau —mutilak iñuan —, ta nire matia bertara juango da. Lafosa gofirik eruango ba'neutso, neugaz egingo leuke dantzea. Baña baratzian lafosa gofirik eztaukot-eta, bakarik egon bialko dot. Eta matia nire aurretik igaroko da beste lagunuen bategaz. Jaramonik eztaust egingo-ta, bijotza erdibituko yat.

—Ona emen benetako matalarija —urtxindorak esan eban—. Neuk abestu (kantau) ta berak jasan (sufridu) bial dau. Beretzat miña da niretzat poza dana. Matasuna arigarija da. Txindirik eztago matasuna eros-teko, salgei ezta egoten-eta.

—Ereslarijak (musikuak) soñu politak joko dabez— mutilak esaten eban—. Eta nire matiak dantza-egingo dau atsegiñez. Leun-leun egingo dau-ta, eztau ofiakin lufik ukutuko. Eta jauregiko zaldun eta andera andikijak, janzki edefakin apainduta, inguratuko dabe. Baña neugaz eztau dantzarik egingo, lafosa gofirik eztaukodalako.

Orixe esanda, bedaf-ganera buruba bota ta arpegija esku-artian eskutau eban. Eta negariari emon eutson.

—¿Mutil orek zegatik egiten dau negari?— bustana gora jasota, ondolik igaro zan muskerak itandu eban.

—¿Zegatik? — eguzki-izpijen inguruban egaizka ebulan mitxeletak esan eban.

—¿Zer dala-ta...?— abots leunaz itandu eutson lora batek auzoko lagunari.

—Lafosa gofi bategatik egiten ei-dau negari— urtxindorak esan eutsen.

—¿Lafosa gofijagatik?— danok batera esan eben—. ¡Olakorik!

Eta muskerak bare-algarak egin ebazan.

Baña ufetxindofak ondo igaften eban mutilaren ifuna. Eta ixil-ixilik, mafasunatzaz oldoztuten (pentsetan) jafi zan.

Bat-batez egalak zabaldu ta zugatzetik alde-egin eban. Lertxundi-ziaf, gerixa lez, igaro ta baratzera jatsi zan.

Baratz-erdijan arkakartz (rosal) edefa eguan. Eta beragana zuzendu zan.

—Lafosa gofi bat emon egistazu —txorijak esan eutson— ta abestirik (kantarik) samuren-gozuena egin-go dautzut.

Baña arkakartzak burubari alde batera ta bestera eragin eutson.

—Nik lafosa zurijak daukodaz —onek erantzun eban—. Itxasoko bitsa baxen zurijak eta mendiko edufa baño zurijaguak dira nire lafosak. Baña zuaz eguzki-gabeukatz (erloju)-azpijan bixi ta azten dan arkakartzera, ta, bialba, emongo dautzu bial dozuna.

Eta ufetxindofak egaiz-egin eban eguzki-gabeukatz-azpijan eguan arkakartzeraño.

—Lafosa gofirik emoistazu —beroni esan eutson— ta abestirik gozuena abestuko dautzut.

Baña arkakartzak burubari batera ta bestera eragin eutson.

—Neuk lafosa orijak daukodaz—ufetxindofari erantzun eutson—. Itxasoko Anderearen uliak baxen orijak eta lilipak (narcisos) baño orijaguak dira nire lafosak. Baña zuaz mutil ofen leyo-azpijan bixi dan arkakartzera, ta, bialba, emongo dautzu bial dozuna.

Eta ufetxindofak egaiz-egin eban mutilaren leyo-azpijan azten zan arkakartzeraño.

—Lafoşa gofirik emoten ba-daustazu —oni esan eutson —abestirik gozuena abestuko dautzut.

Baňa arkakaratzak batera ta bestera buruba erabili eban.

—Nire lafoşak gořijak ixaten dira, ¿bai?— erantzun eutson arkakaratzak—. Epeřen anak baxen gořijak eta itxaso-bafuko koralak baňo gořijaguak ixaten dira nire lafoşak. Baňa negubak odola lefu eustan, eta ixotzak zimeldu daustaz lorak. Ekatzak adafak ausita, aurten eztot lafoşarik eukiko.

Lafoşa goři bat baňo eztot biał —ufetxindofak esan eutson—. ¡Lafoşa goři bat bakařik! ¿Zelan konponduko nintzan ori jaristeko (loftuteko)?

—Bide bat dago ofetarako, baňa bide ikaragařija, ziňez. Ofegařik enaz azařtuten zeuri esaten.

—Esaidazu, mesedez —ufetxindofak eskatu eutson—. Ni enau ezek bilduřtzen.

—Lafoşa gofirik gura ba-dozu, ilargifan, eresijagaz (sořubagaz) ta bijotzetiko odolaz softu białko dozu. Nire arantzetan bulafa ezafa abestu biał dozu. Gau gustijan kantetan ekingo dautsozu. Eta arantzak saf-tuta, zure odola atara ta nire zanetara ekaři białko dauste.

—Erijotza saneuři andijegija da lafoşa gofirik lořtuteko — ufetxindofak esan eban— eta bixitxa danoi yaku atsegingaři. Gozua da baso-ziař ibiltia ta eguzkija ufezko burdijan eta ilargija zidařezkuan ikustia. Gozua da elofi-usaňa ta gozuak dira araneke bazteřetan jayo ta azten diran lorak. Gozua da murubetako iňařa. Baňa mařasuna bixitxa baňo obia ez-ete-da? Txori baten bijotza ezta ezer gixonen bijotz-aldian.

Ufretxindofa egalak zabaldu ta aldendu zan. Baratzetik arin igaro ta lertxundi-ziaf juan zan.

Gure mutila oindiño bedaŕ-ganian etzunda eguan. Begijak malkoz beterik eukozan.

—¡Zorijonekua ixango zara, bai bein! —ufretxindofak esan eutson—. ¡Zorijonduna ixango zara, bai, laŕosa goŕija eukiko dozu-ta! Neronek softuko dot eresijagaz (soñubagaz), ilargijaren argitan. Eta bijotzetiko odolaz goŕituko dot. Ofen ordeŕ auxe bakaŕik eskatuko neuskezu: egizko matalarija ixateko. Maŕasuna pilosopija baño jakintsubagua da, au jakituna ixan-aŕen. Eta indaŕa baño senduagua, au sendo-senduia ixanda be. Maŕasunaren egalak gustitaŕiko marguak (koloriak) daukez. Maŕasunaren ezpanak eztija baño gozuaguak dira.

Mutilak begijak jaso ta zapaŕada gustija entzun eban. Baña ezeban uleŕtzen ufretxindofak esaten eutsonik. Jakiña; ezekijan besterik, maŕasuna dala-ta -eztala idaztijak (liburubak) esaten dabena baño.

Baña zugatza ufretxindofaren esana uleŕtu ta estutu zan, txorijari maŕasun andija aŕtu eutsolako.

Bai, ba, ufretxindofak bere adaŕetan abija eginda eukon-eta..

—Abestu egidazu azkenengo abestija —zugatzok esan eutson—. Bakaŕ-bakaŕik geratuko naz emen, zeuk alde-egin dagixunian.

Ufretxindofak, zugatzari atsegiña emotiaŕen, abestu eban. Abotsa (boza), zidaŕezko pitxaŕetik jausten dan ura-lakoxia zan.

Abestija amaŕuta, mutila zutundu zan.

—Abeskera (kantetako modu) polita yaukok —kol-

korako esan eban, lef txundi-zia! joyala—. Ezin ukatu ori. ¿Baña abestuten yuan gustija sentiduko ete-yok? Ezetz uste yuat. Abeslari askoren antzekua ixango dok: tayu ona abestuteko, baña bijotzetiko sentimenturik ez. Inogalik elayeukek ezer egingo. Eresija (soñuba) azufetaraño saftuta yaukok, ¿bai?, ta lendik yakiguk erti-zaliak (*arte-zaliak*) berekoyak dirala. Baña egija, egi: abots polifa yaukok. ¡Tamala dok, ofatiño, abotsa baño besterik ez eukifia!

Gure mutila, burubari ori esanda gero, etxera zuzendu ta oegañian etzun zan. Eta bere maliazaz pentsetan asi.

Gerotxubago, luak aftu eban.

* * *

Ilargija ortzian agiri ixan zan.

Ufextindofak arkakaratzer a eldu ta arantza zofotzen onduan bulaña izañi eban.

Arantza-onduan bulaña eukolarik, gau gustijan abestuten ekin eutson. Eta ilargi otza adi-adi eguan, ufextindofaren abestija entzuten.

Gau gustijan abesten inardun eban.

Eta geruago bafurago saftzen yakon arantzea bulafian.

Geruago ta odol geyago jarijoten eban.

Lenengo abestu eban Mañasunaren jayotza mutileno eta neskatilen bijotzetan. Eta ofegaz batera, arkakartzaren gorengo adañian, geldi-geldika, lafosa polit-ikuskafija agertuten asi zan.

Jayo zanian, zurbila zan, itxaso-ganera edatuten dan lanbruaren antzekua.

Baña arkakaratzak ufetxindofari agindu eutson, arantzea baŕurago saŕtzeko.

—¡Eldu, eldu arantzari, bestelan lafosa amatu baño len eguna zabalduko da!

Eta ufetxindofak arantzea baŕurago saŕtu ta abesti polifaguak egiten ebazan.

Laŕosaren ofijak gorituten asi ziran.

Baña arantzea etzan oindiño ufetxindofaren bijotzeraño eldu. Eta laŕosaren bijotza zuri eguan.

Bai, ba. Ufetxindofaren odolak bakaŕik goritu daike lafosa baten bijotza.

—¡Sakatu, sakatu arantzari! —arkakaratzak txorijari inotson—. Eguna zabaltzen ba-da lafosa egiten amatu baño lenago, dana alpefik ixango da.

Ufetxindofak arantzea baŕurago saŕtu ta bijotzian ukutu eban.

Orduban min gaŕatza igafi eban.

Geruago gaŕatzagua zan miña ta geruago zolijagua abestija.

Eta lafosa goritu zan, Soŕkaldeko ofztetiko izafa lez.

Aŕezkero, goŕijak eukozan ofijak, goŕija bijotza.

Baña ufetxindofaren abotsa ixilduten asi zan. Egalai eragin eta eragin eta begijak isten yakozan. Geruago ta abesti laŕijago, aulago eukon.

Alako baten, iñoiz baño abots zolijaguagaz, abesten ekin eutson.

Ilargi zurija ortzian adi-adi egokijon. Ufetxindofaren abestijakin aitzu eban ilargijok alde-egitia, egunsentijari bidia zabaltzeko.



Lařosa gořijak, azkenengo abesti au entzunaz batera, atsegiřezko ikaraz, ofijak zabaldu ebazan.

—¡Tira, ba! —arkakaratzak ufetxindofari esan eutson—. Onezkero, bai dago lařosa amatuta.

Bařa ufetxindofak ezaban ezer erantzun.

¡Bijotz-erdijan arantzea sařtuta eukolarik, bedaf-gařian ilđa eguan!

* * *

Eguberdijan gure mutilak leyua zabaldu ta kanpora begiratu eban.

—¡Ene bada! —burubari egin eutson—. ¿Zer ete-dok ikusten yuadana? ¡Lařosa goři bat eztok, ba! Bixitz gustijan etxuat olako lorarik ikusi. Ezin edefagorik ixan.

Orixe esanda, lařosa gořija aftu eban.

Kapelea jantzi ta lorea eskubetan eroyala, matiaren etxera zuzendu zan.

Neskatila ate-onduan, jesarita, eguan. Ořetan etxe-ko txakurra eukon, lotan.

—Atzo esan zeustan, gauf gabian neugaz dantza-egingo zebala lařosa gořirik ekari-ezkero, řezta? —mutilak esan eutson—. Ona emen, bada, lařosarik gořijena. Gauf gabian kolkuan, bijotz-onduan, ezari bialko dozu. Eta alkafegaz dantza-egin dagigunian, zenbat mate zaitudan belarira esango dautzut.

Bařa neskatilak betozko iluna ipiři eban.

—Eztakit, ba, janzki bařijagaz ondo egongo ete-nazan —emaztegayak erantzun eutson—. Gařera, mutil

ezagun batek ufezko pitxi politak bidaldu daustaz. Eta bakixu olako pitxijak lorak baño geyago baliyo dabela...

— Ikusten dodanez, eskaf-txareko andija zara— mutilak, minduta, esan eban.


Eta ori esanaz batera, lafosa aftu ta kanpora bota eban.

Une atan bertan kale-ziaf burdi bat etofan.

¡Eta gure lorea, ¡lafosa matia!, zapaldu eban!



ERALDOI BEREKOYA





ĤATSALDIETAN ikastolatik urten eta ĤĤaldo-
yaren baratzera (jardiĤera) juaten ziran
umiak, jolastuten (olgetan).

Baratz edefa ta andija zan eta bedaĤ
oflegiz (berdez) ta samuĤez beterik
eguan.

BedaĤ-aĤtian, of-emen sakabanatuta, lora polĤak
azten ziran, ixafak baxen dizdiratsubak.

Baratz onetan amabi mertsikondo egozan, udabaĤi-
jan lora ikuskaĤiak eta udan igali (fruta) gozuak ekaĤ-
ten ebezanak.

Txorijak zugatzetan jaĤi ta abesti samuĤak egĤen
ebezan. Eta umiak, jokuak alde batera itxiĤa, adi-adi
geratzen yakezan.

—ĤEmen gara zorijondunak! —alkaĤi esaten eutsoen.

* * *

Bein, ĤĤaldoya (Gigantia) eldu zan.

Saspi urte lenago aizkide bat ikusten juanda, orain
-aĤte etzan atzera etofi baratzera.

Ona elduta, umiak jolastuten ikusi euzan.

—¿Ze aŕayo egiŕen dozube emen? —abots gaŕatzaz esan eutsen.

Umiok, ori entzunda, igesari emon eutsoen.

—Baratz au neuria da —Eŕaldoyak esan eban—. Ori gustijok jakin biaŕko eben. Eta eztautsot iñori bertara saŕtzen itxiko

Oŕetarako, baratz-inguruban aŕesi andija jaso (altzau) ta idazkun bat ezafi eban, esanaz: «Ez saŕtu ona, zigofiŕ (kastigurik) aŕtu gura ezpa-dozu».

Gixon berekoya zan gustiz gure Eŕaldoya.

Ume gaxuak ezeuken afezkero jolastokirik.

Bitxabalian (bide baŕijan) jolastu gura ixaten eben. Baña aŕi-kozkoŕez ta autsez beterik eguan-eta, ezin olgetarik egin.

Saŕi aŕesi-aldera juaten ziran, baratzagaz gomutetan.

—¡Gustiz zorundunak gintzazan len! — alkaŕi esaten eutsoen.

* * *

Udabaŕija elduta, luŕalde gustijak txoriz ta loraz bete ziran.

Baña Eŕaldoi berekoyaren baratzian neguba zan ondiño.

Umerik etzan bertan ibiltan-eta, txorijak ixilik eta zugatzak lo egozan, ez lorarik, ez ofirik ekafi-barik.

Bein, lora edeŕ batek, bedaŕ-aŕtetik, buruba atara eban.

Baña baratza iŕun-iŕun, itxura negaŕgaŕi oŕetan ikusiŕa, bedaŕ-aŕtera baŕiro saŕtu eban.

Eŕaldoyaren baratzian pozik egozanak, Eduŕa ta Ixotza ziran.



—Itxuraz, udabarijak eztau baratz onetara etorri gura —bijok batera esan eben—. Orezkero, urte gustijan oparo bixiko gara emen.

Eduñak, zapi zurijagaz, baratza estaldu eban.

Ixotzak zidafeztau ebazan bertoko zugatzak.

Ori eginda, Ipañaldeko Axiari esan eutsoen eurekin bixiten juateko. Eta Ipañ-Axiak bayetz erantzun eban.

Nafuz jantziñ, baratzera eldu zan. Eta egun gustijan ofu-egin eban, zugatzai bultz-eginaz.

—¡Auxe da leku atsegingarria! —Eduña ta Ixotzari esan eutsen—. Txingoñari esan biraño dautsogu, iker-talditxu (bisitatxu) bat egiten etorteko.

Txingoña be eldu zan.

Egunian-egunian tanboña jotzen eban Eñaldoyaren etxeko telatuban, tela asko apurtuta.

Ori egin eta baratzeko bazteretatik gira-bira egiten eban, arin-arin. Urdinez jantziñ eguan eta arnasea ixotza-lakua eukon.

—¿Baña zer dala-ta ezta Udabarija ondiño etorri? —Eñaldoyak esaten eban, leyotik begiratu ta baratza zuri ta otz ikusten ebanetan—. Nik uste neban eguraldijak laster aldatu egin biraño ebala.

Baña Udabarija etzan inoiz etortzen. Eta udea bez.

Udagoyenak igali gozuak ekañ eutsezan baratz gustijai. Baña Eñaldoyarenari, ez.

Ofetara, ba, zorigaitzoko baratz atan beti eguan Neguba.

Eta Ipañ-Axia, Ixotza, Txingoña ta Eduña batetik bestera ibiltzen ziran, zugatz eta bedar-antian.

* * *

Goiz baten, oian etzunda egualarik, Eraldoyak eresi (soñu) atsegingarrija entzun eban.

Belarrijetatik gozaro saftuten yakon-eta, uste ixan eban ereslarijen bakalduna edo (musikuen eregia edo) ixango zala eresi a joten ebana.

Baña etzan ori.

Ereslarija zan, leyo-onduan abestuten eguan kardantxorija.

Eraldoyak antziñetik (aspalditik) ezeban txori-abestirik entzuten-eta, kardantxorijaren abotsari edefito eritxi eutson. Orduban Txingorak dantzari itxi eta Ipar-Axia ixildu zan. Usain gozua saftu zan leyotik bafura.

—¡Tirok, ba! Edonok esango yuan Udabarija eldu dokala —Eraldoyak burubari egin eutson. Eta oetik jagi ta leyora uften zan.

¿Leyotik zer ikusi ete-eban?

Ikuskixun edefa eukon begi-aurian.

Afesi-zirikifutik umiak baratzer saftuta, zugatzetan ebiltzan.

Zugatz bakotxian ume bat eguan.

Zugatzok umiakin pozik egozan-eta, loraz apaindu ziran. Eta adarak zabuka ebiltzan umien buru-gañian.

Txorijak, txioka, adarik-adar ibiltzen ziran. Baratzeko lorak bedar-afetik buruba ataraten eben.

Ikuskixun edefa, zoragarrija zan.

Baratzeko bazter baten, baño, ondiño neguba zan.

Toki onetan ume bat eguan.

Txiki-txikija zalako, ezin zugatzetako adarai eldu. Eta negafari emoten eutson.

Zugatz gaxua edur ta ixotzez beterik aufkitzen zan. Eta Ipar-Axia oruka ibiltzen yakon inguruban.

—¡Erdi ona, nire altzora, umetxu matia! —zugatzak esaten eutson.

Eta ofetarako adafak luña jo-arte erasten ebazan.

Baña umia txikijegija zan zugatzera igoteko.

Efaldoyari, ori ikusita, taupadaka asi yakon bijotza.

—¡Neu ixan nok astakirtena! - kolkorako esan eban—. Baña orain igaften yuat zegatik eztuan ona eldu Udabafija. Neuk jasoko (altzauko) yuat zugatzera ume ori. Eta gero baratz-inguruko afesija lufera botako yuat, umiak ona saftu ta jolastuteko.

Ben-benetan damututa eguan gure gixona len egin-dakuagaz.

Etxeko zurubifik (eskileratik) jatsi, aufeko atia zabaldu ta baratzian agertu zan.

Baña umiak, Efaldoya ikusi-orduko, gustiz ikaratu ziran. Eta igeseri emon eutsoen.

Bat-baten baratzera eldu zan Neguba ostera be.

Ume txikijak, baña, ezeban alderik egiten. Begijak malkoz beterik eukozan eta ezeban ikusi Efaldoya uferatzen.

Onak beragana eldu, eskubakin jaso ta zugatz-gañian ezafi eban.

Orduban zugatza, bat-batez, loraz apaindu zan.

Eta txorijak adafetara eldu ta txioka ekiten eutsoen. Gure umiak, ume kozkofak, Efaldoyari besafkatu ta mosu-egin eutson.

Beste umiak, ikusi ebenian ori ta igafi Efaldoya gaiztua etzala, atzera etofi ziran, zalapartaka ta ariñeketan.

Eurekin batera Udabafija be atzera etofi zan.

—Emetik aufera, ene umiok, baratz au zubentzako baratza ixango da —Efaldoyak esan eutsen.

Eta orixe esanda, aizkora andi bategaz afesija bota eban.

Eta eguberdijan, gixoztia (gentia) azokara joyanian, afituta lotu zan, umiak Eñaldoyagaz olgetan ikusiñ.

Egun gustijan jolastuta gero, iluntzi-aldian Eñaldoyari juan yakozan, agur-egiten.

—¿Baña nun dago zuben laguntxuba? —Eñaldoyak itandu eutsen—. ¿Nun ete-dago zugatz ofetara altzau neban umia?

Gure gixonak ume au bestiak baño mañago eban, mosu bat emon eutsolako.

—Eztakigu, ba —umiak erantzun eben—. Oñtik juango zan.

—Esayozube bijañ etoñteko atzera.

Baña umiok erantzun eben ezekijela nun bixiko zan, ordurafte ezeben iñoiz ikusi-ta...

Eñaldoya ifun (triste) geratu zan.

* * *

Afatsaldian-afatsaldian, ikastolatik uñtenda, Eñaldoyagaz jolastuten umiak juaten ziran.

Baña Eñaldoyak mañago ebana etzan beste bein egertu.

Eñaldoya on-ona zan ume gustijentzat. Oñaiño, lagun txikitxuba ikusi gura...

Safi gogoratzen zan beragaz.

—¡Oin be atsegiñez ikusiko nayeukek, ba! —bañ-urako esaten eban.

* * *

Urtiak juan urtiak etofi, Eñaldoya zañtu, zaña egin zan.

Indaña be gitxituten asi yakon.

Umiakin jolastu-eziñik, jezañña egoten zan, lagun kozkofai ta baratzari begira.

—Gura-aña lora edeñ yaukodazak. Baña umiak dozak lorarik edeñenak —burubari egiten eutson.

* * *

Neguko goiz baten, jantziten zan biñatñan, leyotik begiratu eban.

Añezkero ezeban Neguba goñotetan, ikasiña eukolako Neguba eztala Udabañña lo baño. Neguban lorak atsedenduten (deskantsua aytzen) egon oi-dira.

Alako baten begijai igoñtzen ekin eutsen, gustiz gelduta (mirarñtuta), zer ekusan (ikusten eban) ezekijala.

Ikuskañña zan, bai bein, Eñaldoyak ikusten ebana.

Baratzeko bazteñ baten zugatz bat eguan, lora zuriz beterik. Adañak uñeztauta eukozan. Eta adañetatik dingilizka zidañezko igalñjak (frutak), zabuka, ebiltzan. Zugatz-azpiñan, zutunik, eguan ainbeste mañe eban ume kozkofa.

Pozaren pozez, Eñaldoya baratzera jatsi zan.

Eta umiagana elduta, asañe bixiz itandu eutson:

—¿Nor ixan ete-da zaurñtu zaitubana?

Bai, ba. Umiak eskubetan untze biren atza (loñatza) eukon. Eta oñetan beste-oñenbeste.

—¿Nor ixan ete-da zeuri miñik egiten azañtu dana?

—esan eutson gure Eñaldoyak—. Arin esaidazu, ezpa-tea añtu ta bertan bera ilteko.

—¡Ez! —umiak erantzun eutson—. Zauri onek dira Mañasunaren zaurijak.

—¿Nor ete-zara Zeu, ba? —Efaldoyak itandu eutson. Eta ikaraz ta bildufez, ume kozkoñaren aulfian auzpeztu zan.

Umiak, ifi-bafe gozuaz, Efaldoyari erantzun eutson:

—Bein itxi zeustan baratzer a olgetan saftzen. Gauf neugaz elduko zara beste baratzer a, betiko Paradisura.


* * *

Afatsalde atan, umiak baratzer a eldu ziranian, Efaldoya ilda topau eben, zugatz baten azpijan, lora zuriz apainduta.

oooOooo



BENETAKO ADIZKIDIA





ON eritxon mutila mutil zintzua zan.

Basetxe baten bixi zan.

Beronek jatekuak gertau (prestu) ta egunian-egunian baratzian egiten eban lana.

Luñalde atan ezeguan beria baño baratz (jardin) polifagorik.

Gustitarriko lorak eukozan bertan. Lañosak, klabelediñak, txidañak (alelles), lilipak (narcisos)-eta eufez azten yakozan.

Orixe zala-ta, Jon'en baratzian beti egoten ziran lora polifak begijen atsegiñerako ta usain gozua sufren pozkafirako.

Gure mutilak adizkide asko eukozan. Baña bereztako adizkiderik onena Eñotarija zan.

Eñotari aberats onek bein baño sañijago mañasuna erakutsi eutson, Jon'en baratz-aldeñik igarotian bertako kerexa ta okaran goñijak edo lora-txortak añapau ta etxera eruanaz.

—Benetako adizkidiak auxa egin biñako leukie: adizkidiena dana añtu, eureña ba'ñitz lez —Eñotarijak sañi esan eroyan.

Eta Jon'ak, ifi-bañeka ta burubaz, bayetz esaten

eutson. Gure mutilak aintzat afituten ebazan beti adizkidiaren esanak.

Efikua, baña, mor-morka ibiltzen ziran, Efitari aberatsak ezer emoten ezeutsolako mutilari lora ta igalijen (frutien) truke, etxian uruna ugari ta sei bei esnedun eta artalde andija euki-añen.

Baña Jon'ak konturik afitu ez.

Beronek naikua eukon, benetako adizkidetasuna dala-ta-eztala Efitari malmutzak esaten ebanagaz. Pozik eguan gure mutila, Efitari jakifunaren adizkiderik onena zala jakiñik.

Len esan dogun lez, Jon'ak baratzian egiten eban egunoroko biaña.

Udabafijan, udan eta udagoyenian zorijonekua ixaten zan. Baña neguban ezaban lorarik ez igalirik afitzen, merkatura eruateko. Eta afitzkero, gosia ta otza laguntzat eukiñen ebazan.

Bein baño geyagotan oera juañ biañ ixaten eban ija ezer jan-barik.

Oñez gañera, neguban aurkitzen zan beti bakaf-bakafik, Efitarija etzan bera ikusten juaten-eta.

—Eduña dan bifartian, etxat ondo etoñten Jon ikusten juatia —Efitarijak esaten eutson emaztiari—. Estu ta lafi iñor dabilenian, obe da bakafik itxi, ikeñtaldirik (bisitarik) egin barik. Neuk beintzat olan atuten dot benetako adizkidetasuna, ta uste dot zuzen nagola. Itxarongo dot, ba, udabafija eldu-añte. Orduban egingo dautsot bisitatxu bat. Berak emongo daust burdibete lora, jta kifut! ¿Geyagorik biañko ete dau gure mutilak, zorijonekua ixateko?

—Ardura lafegi afitzen dozu geidiagatik (lagun-ur-

kuagatik) —emaztiak erantzuten eutson, su-onduan, nasai-nasai jezañia—. Biat dan baño ardura geyago aftzen dozu, bai. Atsegingarjia da, ixan be, zeuri entzutia adizkidetasuna dala-ta-eztala esan daruazuna. Ziurztat daukot efiko abadiak be eleukela zeuk baño obeto itz-egingo.

—Baña ezin Jon'i esan ona, gurera etofteko? —Erotarijaren seme gastiak itandu eutson oni—. Jon gaxua estu ta lari ba-dabil dirurik eztaukolako, neuk jaten emongo neuskio. Baña etxian daukodazan koneju zurijak erakutsi be.

—jZeu zara tentela! —Erotarijak esan eutson semiari—. Eztakit zetarako bidaltzen zaitugun ikastolara, jmila arayetan! Itxuraz, eztozu askorik ikasten. jEztozu igarten, ba, Jon gure adizkidia on a etofi-ezkero, bekatxa (enbirija) sentiduko ebala, etxe onetako su edefa ta janari-edari gozuak ikusita? Eta bekatxa gauza ikaragarjia da: mutilik onenak galdu ta ondatu daruaz. Tamal andija ixango litzake Jon-lako mutil zintzua olan galdutia. Neu bere adizkiderik onena naz, jbai?, ta zaindu bafian nago, olako ariskubetatik alde-eragiteko berari. Ofez gañera, Jon ona ba'letof, ufian eskatuko leuskit urun-apuf bat, beste egunen baten ordaintzeko (pagetako), ta ori eziñezko gauzea da. Uruna da gauza bat eta adizkidetasuna beste bat. Eztira bijok nastau biat.

—jSekuleko edertoen egiten dozu itza (berbia)! —Erotarijaren emaztiak esan eutson oneri, garagardao (cerveza)-dangada ona artuta—. Zeuri entzuten ija lotan geratu naz, elexan ba'nengo lez.

—Notin (persona) askok egite onak egiten dabez

—Eñotarijak esan eban —, baña gitxik dakije ondo itz-egiten. Ofek adirazoten dau gatxagua ixaten dala ondo itz-egitia egiñen onak egitia baño. Gatxagua ezeze, edefagua be bai.

Ori esanda, semiari begirada itxala bota eutson.

Au, lotsaz gofi-gofi eginda, buruba makufu ta negafez asi zan.

Bai, ba, ume-umia zan-eta...

* * *

Udabarijagaz batera, lorak jayo ta azten ziran.

Orduban Eñotarijak emaztiari esan eutson Jon ikus-ten jua bialko eba.

—¡Zeuk daukozu bijotz ona! —emaztiak erantzun eutson—. ¡Beti iñoren arduriar! Ez aitzu, baña, zaran andia eruaten, loraz beterik ekaiteko.

* * *

Gure Eñotarija, beso-azpijan zarana eroyala, Jon'en etxera eldu zan.

—Egunon, adizkidia —mutilari esan eutson.

—Baña zeuri be —Jon'ak, bafez ta pozik, erantzun eban.

—¿Zelan konpondu zara neguban?

—Ondo, gustiz ondo. Eskafik asko zeure ardura-gatik. Une (momentu) txafak be ixan nebazan. Baña udabarija eldu da onezkero, ta zorijonduna naz, lora gustijak ondo datofkidaz-ta.

—Bein baño geyagotan atatu zaitugu gurian. Eta alkañi ifanduten (preguntetan) geutson: «¿zelan atonduko ete-da negu onetan gure adizkidia?».

—Eskañik asko. Zu adizkide zintzua zara Nik uste neban ija aitzuta eukiko ninduzubela.

—Pentsau be olakorik! —Eñotarijak erantzun eutson—. Bakixu egizko adizkidiak eztaula lagunik aitzu bial. Adizkidetasuna gauza andija da, zeuk ondiño uleñtuten eztozuna. Baña beste ari batera jota, ¿zeuk daukozuz lañosa polifak!

—Bai, gustiz polifak dira. Eta ezta zorijon txikija niretzat ofenbeste lañosa eukitia. Merkatura eruango dodaz bial. Eurak salduta añtu dagidazan dirubakin, neguban saldu bial ixan neban esku-burdija atzera ekañiko dot.

—¿Esku-burdija saldu zendubala? ¿Bestelako tentelkerija!

—Bai, tentelkerija ixango da —Jon'ak esan eban—, baña eneukon beste biderik gosez ez ilteko. Bakixu neguba aldi txaña dala niretzat. Eta eneukon zer jan. Lenengo saldu neban jayegunetarako neukon janzkija. Gero zidañezko estuntzea (katia). Onen uñengo pipa andija. Eta, azkenez, esku-burdija. Baña lasteñ ekañiko dodaz atzera gauza gustijak.

—Ia, Jon, neuk emongo dautzut nire esku-burdija. Eztago osorik. Alde batian zulatuta dago ta txiñgea be apuñtuta dauko. Baña ¿tira!, ori ta gusti be, edeñto etoñiko yatzu. Bakit esku-burdirik eztaula edonok emoten, bezuza (eñegalu) andija da-ta. Baña ezta ardura: zeuk dakixunez, enaz zekena, eskuzabala baño. Nire ustia da olako gauzak egin bialko litzakezala beti adiz-

kidien artian. Baña ez estutu oregatik, niretzat esku-burdi bafija erosi dot-eta.

—¡Zeu zara eskuzabala, eskuzabalik ixatekotan! —Jon'ak esan eutson. Eta arpegija, arpegi alaya ta biribila, pozaren pozez, argitu yakon—. Burdija apur-tuta ba-dago be, ezta ardura. Neuk konponduko dot, ofetarako bialko dodan ola etxian daukot-eta.

—¿Ol bat daukozula etxian? —Erotarijak esan eutson—. Egin-egitian be, orixe baño eztot bial nire aletegiko sabaya atonduteko. Zulo andija dauko, ¿bai?, ta gari gustija ezotu ta galduko da, estalduten ezpa-dot. Ordu onian esan dozu ol bat daukozula. Egitzen on batek beste egiten on bat ekañi darua. Nik esku-burdija emon dautzut. Eta orain zeuk ola emongo daustazu. Jakiña: esku-burdijak olak baño geyago balijo dau. Baña benetako adizkidiak eztau ori ainzat aften. Beriala emoten ba-daustazu zorijoneko ol ori, oba, gaur bertan aletegijan ipini gura neuke-ta.

—¡Tira, ba! —Jon'ak erantzun eutson.

Eta txabolara zuzenduta, ola ekañi eban.

—Ezta andi-andija —Erotarijak esan eban—, eta uste dot aletegiko zulua atonduta gero etxatzula esku-burdija konponduteko bialko dozun beste geratuko. Baña ori ezta nire efuba. Beste gauza bat, mutil. Esku-burdija emon dautzudanezkero, uste dot pozik emongo zeustazala lora batzuk, ¿ezta? Ona emen zarana. Zeu konponduko zara berau beteten.

—¿Zaran au bete? —Jon'ak, ija naigabez, esan eban.

Bai, ba, zoritxareko zarana andi-andija zan, eta bera bete-ezkero, etxakon saltzeko lorarik geratuko.

—Bai. Esku-burdija emon dautzudulako, eneban

uste lafegikeririk ixango zanik lora batzuk eskatzia. Okef ezpa-nago, egizko adizkidien aŕtian ezta neurerik ez zeurerik egon biaf.

—¡Oi, adizkide matia! —Jon'ak esan eban—. Baratzeko lora gustijak zeuriak dira. Zure adizkidetasuna gurago dot, jayegunetarako janzkija baño.

Eta laŕosa gustijak aŕtu ta Eŕotarijaren zarana bete eban.

—Aguŕ, Jon matia —Eŕotarijak esan eutson, ola besapian eta zarana ŕorbalda-gañian croyazala, baratzetik alde-egin ebanian.

—¡Aguŕ! —Jon'ak, gogoz ta sutsu, erantzun eutson.

Eta atxufa eskubetan eukola, lanari ekiten asi yakon, alai ta pozik, ibili ta ibili esku-burdija eukiko ebala-ta.

* * *

Bijaramonian, baratzian biafian eguala, bidetik dei-egiten eutson abotsa entzun eban.

Ariñeketa baten, baratza inguratzen eban oŕma-gañetik begiratu eban.

Gure Eŕotarija zan, sorbalda-gañian urun-zofo (saku) andija ta aztuna ekaŕana.

—Zu, Jon —oni esan eutson—. ¿Eruango ete-zeus-tan zofo au azokara (merkatura)?

—Tamal andija da, baña gauŕ ezin, lanez beterik nago-ta.

—¡Zer lan eta zer lan-ostel Esku-burdija emongo dautzudala goguan ba-daukozu, uste dot biaŕtuta zagozala eskaŕ (mezede) au egiten.

—¡Tira, ba! Eruango dautzut, bai, zoŕua. Eneuke gura bada-ezpadako adizkidia nazanik zeuri entzutia.

Eta txapela buruban jantzifa, zofo aztuna, nekez ba-zan be, sorbaldan artu ta merkaturantz abijau zan.

Bero andiko eguna zan. Bidia autsez beterik eguan.

Ibili ta ibili, jezafi ta atsedena (deskantsua) artu bial ixan eban, gustiz nekatuta aufkitzen zan-eta.

Andik lastef, bidiari bafiro ekin eutson.

Azokara eldu zan.

An luzaro egonda gero, saneufi (prezijo) onian zofua saldu eban.

Orixeginda, etxerako bidia artu eban.

—Ben-benetan, egun txafa ixan dok niretzat gauferko eguna —etxian egualarik gure mutilak kolkorako iñuan—. Baña, tirok, pozik nayagok Efortarijari ezetzik esan eztautsodalako, adizkiderik onena orixeguat-eta. Ofegañera, kontuban euki bial guat esku-burdija emongo yaustakala.

* * *

Ufengo egunian, goiz-goxetik, Efortarija etori zan atzera, urun-zofuaren txindija (diruba) artuten.

Baña Jon, gustiz nekatuta eguan-eta, oian aufkitzen zan.

—Itxuraz —Efortarijak esan eutson— alpef bat baño etzara. Nire ustez, lan geyago egin bialko zeunke, esku-burdija emongo dautzudanezkero. Alpefkerija gauza txafa da, ta eneuke gura adizkide alpefik euki. Argi ta garbi esaten ba-dautzut be, etzeunke asafatu bial. Benetako adizkidia ezpa'nintz, eneuskixu esango.

—Zuzen zagoz —Jon'akesan eban, begijak igoftiz—. Baña oso nekatuta nenguan-eta, beste egunetan baño

pizkat geyago lotu naz oian. Bide-batez, txorijai abes-
ten entzun gura neutsen. ¿Eztakixu atsegin geyagoz
egiten dodala bifa txorijai entzun ezkeror?

—Tira, ba; poztuten naz —Efortarijak esan eutson,
leun eta mafero, sorbaldan jota—. ¿Bakixu zegatik?
Neugaz efortara etofi bifa ko dozulako, oetik jagi ta
beriala, aletegiko sabaya atonduten.

Gure mutilak bifa andija eukon baratzian, lorak busti
ta jofatu-barik eukozan-eta. Baña etzan azaftu Efortari-
jari ezetzik esaten, beretzat adizkide on-ona zalako.

—Zu, Efortari, gauza bat. ¿Bada-ezpadako adizkidia
lez agertuko nintzake zure afitan, bifa asko daukodala
-ta zure aginduba ezin dodala bete esango ba'neutzu?
—lotsaz gorituta Jon'ak ifandu eutson.

—¡Jakiña! Eztot uste, eskatu dautzudana eskatzia
laegikeririk danik. Goguan euki bifa dozu esku-burdija
emongo dautzudala. Baña dana-dala, ezetz esaten ba
-daustazu, neronek atonduko dot aletegiko sabaya
—Efortarijak erantzun eban.

—¡Ez orixe! Neuk egingo dautzut.

Jon zintzua oetik jagi ta Efortarijaren aletegira
juan zan.

Egun gustijan, eguzkija ostendu-afte, lanari ekin
eutson.

Efortarija iluntzijan etofi yakon, lana zelan eguan
ikusten.

—¿Ondo atondu dozu sabaiko zulua, Jon? —alai
-pozko ifandu eutson.

—Bai, ba-dago atonduta.

—Eztago lan atsegingafijagorik, ifiori egiten dau-
tsogun lana baño, ¿ezta, mutil?

—Gustiz ederito itz-egiten dozu —Jon'ak erantzun eutson Erotarijari, bekoki-ixerdija kentziaz—. Baña ixan leike zure uste ederik nik sekula be ez eukitia.

—Ez estutu ofegatik. Olako uste ta asmo edefak zeuri be etofiko yatzuz, zetofi ez? Baña ofetarako alegiñak egin kiafko dozuz. Orain arte eztaukozu adizkidetasunaren ekintzea (práctica) baño. Noizpait eukiko dozu zeuk be adizkidetasunaren ustarija (teoría).

—¿Eta zeuk uste ete-dozu ori loftuko dodanik?

—¿Loftu (kontsegidu) ez? ¡Bai bein! Baña sabaiko zulua atondu dozunezkero, obeto egingo zeunke orain, atsedena (deskantsua) artzen zure etxera juango ba'zintzaz, bijañ artaldia mendira eruan biafko daustazu-ta.

Jon'ak ezeutson ezetzik esan.

Bijaramon goxian Erotarijak artaldia ekañ eutson Jon'i.

Eta onek, ardijok aftu ta mendira eruan biañ ixan ebazan.

Juan eta etofitiagaz egun gustija galdu eban.

Etxera eldu-orduko, nekatuta eguan gustiz.

Eta arki (sila) baten jezafi ta luak aftu eban. Ufengo goiz-erdirafte etzan itxaftu.

—¡Auxe dok eguraldi edefa baratzian biañ-egiteko!

—bañurako esan eban.

Baña onegatik edo ofegatik ezin ifioiz lorarik zaindu.

Erotari adizkidia safi elduten yakon, agindu bat edo beste emoten, edo erotara beroni lagun-egiten juateko eskatuten.

Jon gaxua atsekabez beterik egoten zan, baratzeko lorak galduko yakozalakuan. Baña bañiro poztuten zan, adizkiderik onena Erotarija zala gogoratziaz.



—Ófez gañera —kolkorako esaten eban—, esku -burdija emongo ei-yaustak. Eta au etxok edonok egiten.

Óretara, gure mutilak Eñotarijarentzat egiten eban bíaña, onek adizkidetasuna dala-ta-eztala gauza politak esaten euzan bitartian.

Gauza onek Jon'ak ingurazti (kuaderno) baten idazten ebazan, gabian irakufi ta gogoratzeko, mutil ikastuna zan-eta.



Gau baten, gure mutila su-onduan jezarita egularik, atian jo eben.

Gau atako eguraldija txaf-txafa zan.

Axia ofuka eñilan. Eta euri-zapañada andijak jausten ziran.

Orixo zala-ta, Jon'ak pentsau ixan eban axia ixango zala atian ots-egiten ebana.

Baña bigafenez ta len baño gogofago jo eben.

—Bidaztiren bat ixango dok, urian —Jon'ak bafurako esan eban, atera zuzenduta.

Atia zabaldu ta ikusi eban gure Eñotarija, esku batian argontzija (parola) ta bestian makila sendua eukozana.

—Jon matia —Eñotarijok esan eutson—, jeztakixu zelako atsekabe andija daukodañ! Seme txikijak zurubitik (eskileratik) bera jausi, ¿bai?, ta miña aftu dau. Osagiliaren bila juan gura ixan dot. Baña alde batetik urun bixi dalako ta bestetik eguraldi txafa dagolako, otu yat ona etortia, zeu bere bila juan zadixan. Bakixu

esku-burdija emongo dautzudala. Beraz, zeozer egin biafko zeunke nire aldez.

—Eskafik asko estura onetan nigaz gomutau zara-lako. Berialako baten asiko naz ibilten. Baña argontzijoit itxi biafko zeustan. Gau iluna dago-ta, nunbait jausteko bildufa daukot.

—Tamalez, ezingo dautzut argontzirik itxi —Efortarijak esan eban—. Bari-barija da, ¿bai?, ta atsekabe andija artuko neuke, galdu edo apurtuko ba'zeu.

—Tira, bardin daust. Argontzi-barik juango naz —Jon'ak esan eutson, naruzko jakia ta txano gofija jantzita.

Eta lepokua (bufandia) sama-inguruban ezafi ta beste-barik etxetik urten zan.

¡A zan ekaitz gogofa! Gaba ilun-ilun eguan-eta, Jon'ak ezin ezer ikusi.

Axe indartsuba ebiñalako, ezin zutunik egon.

Baña adoretsuba zan gure mutila, ¿bai?, ta iru orduko bidia eginda gero, osagiliaren etxera eldu ta atian jo eban.

—¿Nor da? —osagiliak ifandu eban, leyotik buruba atarata.

—Neu naz, osagile jauna.

—¿Zer bial ete-dozu, Jon, ordu onetan?

—Efortarijaren semiak zurubitik bera jausi ta miñik artu ei-dau. Efortarijok diño ainbat lasteren juateko.

—Tira, ba —osagiliak erantzun eban.

Eta zaldija, oski (zapata) lodijak eta argontzija artu ta bidia ekiten asi zan.

Jon gaxua atzetik joyan, oñez ta nekez.

Geruago ta ekaitz andijago. Eurija uyolka jausten zan.

Jon'ak ezekijan oñak nun ipiñi. Ibili ta ibili, galdu zan.

Alako baten zulo sakon batera mutil zorigaiztokua jausi ta ifo zan.

*
* *

Bijaramonian artzain batzuk mutilaren gorpua basa -aítian aurtitu ta bere etxera eruan eben.

Ériko lagun gustijak juan ziran Jon'en iortzira (entiefura), danok mate eben-eta. Gure Éfotarija gente gustijen aurtetik, buruban, joyan.

—Bere adizkiderik onena nintzan-eta —beronek esaten eban— lekurik agirijenian jafi biafko naz.

Gixatalde gustijaren aurteta joyan, bada, gure Éfotarija.


Jantzi zabal (kapa) baltza ta luzia eroyan. Eta lantzian-bein begijak igortziten ebazan zapi andiategaz.

—Egiz esan lei tamal andija aurtu dogula danok Jon'en erijotziaz, mutil zintzua ta esanekua zan-eta —efementarijak esan eban, gorpua lufalduta (lufeta sartuta) gero ardandegijan (trabeanan) nasai-nasai jezaifia, danok jaten eta edaten egozanean.

—Neuk beintzat tamal andija daukot —Éfotarijak erantzun eutson—. Beretzat adizkiderik onena nintzan. Eta esku-burdi bat eta gusti eskiñi neutson. Orain ez-takit zer egin zorijoneko burdijagaz. Etxian enbarazua baño eztaust egiten. Eta gustiz apurtuta dagolako, eleuskide ezer emongo salgei ipiñiko ba'neu. Emetik aurteta eztautsot ifñori ezer emongo. ¡Ezta ezta!...



ZIZIRIKO OSPETSUBA





AKALDUNAREN (Eregiaren) semia ezkontzeko eguan.

Orixe zala-ta, jai andijak egiten ebezan.

Urtebete baño geyago egon zan senafgaya emaztegayari itxaroten. Azkenian, eldu zan au.

Rusia'ko printzesa bat zan, Finlandia'tik arba (trineo) baten etofana.

Arba onek eukon zisne baten antza.

Onen egal-artian gure neskatiła etofan jezařita.

Gustiz ederto eguan apainduta ta zurbil-zurbila zan, jayotzetik ordurařte bixi ixan zan edurezko jauregija baxen zurbila.

Kale-ziar jonyanian, danok esaten eben ao batez:

—¡Zurbil-zurbila da-ta, lařosa zurija dirudi!

Eta etxietako leyoetatik lorak jauřtiten eutsoezan.

Jauregiko atian bakaldungaya eguan begira.

Begi ameslarijak eukozan eta ufe margodun (kolor-edun) ulia.

Emaztegayaya ikusiřa, buruba ta belauna makuř-makuř egin ta eskuban mosu-egin eutson.

—Zure argazkija (eřetratua) edeřa zan, ziřnez, — mu-

tilak esan eutson— baña zeu argazkija baño edefagua zara.

Bakaldungai-emiari (printzesari) arpegija goritu yakon.

—Oraintxu arte lafosa zurija-lakua zan —jauregiko mofoi batek esan eban—. Baña orain lafosa gorija -lakoxia da.

Jauregiko zaldun eta andera gustijak aintzat artu eben mofoyaren esana.

Egun batzutan danak esaten eben:

—Lafosa zurija, lafosa gorija; lafosa gorija, lafosa zurija.

Bakaldunak agindu eban urteko sarija (alogerea) mofoyari andituteko. Baña onek saririk ezaban aytzen -eta, naikua euki eban Bakaldunaren agindubagaz.

Iru egun-bafu ezkontzea egin zan.

Ori zala-ta jai ederak ixan ziran.

Ezkonbarijak, alkafen eskutik elduta, jatefu (konbidau) gustijen aytetik igaro ziran.

Gero bazkarija ixan zan.

Bakaldefiko (efeñuko) agindari, zaldun eta andera andikijak eldu ziran bertara.

Ezkonbarijok mai-erdiñan jezañita egozan eta leyañ (kristal) argizko edontzi batetik edaten eben.

Egizko matalarijak bakafik edan bial ixaten eben edontzi onetatik. Matetan ezebenen ezpanak ukutu -ezkero, leyañ argija urdin biguñtzen ei-zan.

—Igañen da, bai, alkafen mate dirala —lengo mofoyak esan eban—, leyañezko edontzija argi-argi dago-ta.

Bakaldunak agindu eban, mofoyari sarija getuteko oster a be.

—¡Orixe da mutil zufa! —jauregiko gustijak, batera, esaten eben.

Bazkal-ostian dantzaldija ixan zan.

Ezkonbatijak lafosaren dantzea egin biafko eben. Bakaldunak berak txilibituba joko eban.

Ben-benetan, eresi (soñu) bi baño ezekijazan. Eta safi, bata jo-biafian bestia joten eban. Baña ardurarik ez, joko ebana joko ebala, danak batera esango eben:

—¡Edefto! ¡Edefto! ¡Obeto ezin!

Jayak amafuteko, gabian guzufeeko subak (su artifizialak) egin biafko ziran.

Bakaldungai-emiak ezekijan zer zan ori, ezaban iñoiz ikusi egin-eta.

—¿Zertzuk ete-dira guzufeeko subok? —egurastuten alkafeekin ebiltzalarik, emaztiak senar batijari itandu eutson.

—Egungentija-lakuak dira —Bakaldunak erantzun eutson. (Esan biafko dogu, Bakaldunak beti erantzuten eutsola beroni itanduten etxakonari)—. Neuk gurago dodaz guzufeeko subak, ixararak baño, lendik dakigulako oneik noiz agertu ta ostendu bial daben. Orez gañera, nire txilibifu-soñua baxen atsegingafijak ixaten dira guzufeeko subok. Ointxe ikusiko dozube...

* * *

Jauregiko baratzian dana gertu eguan zorijoneko subak egiteko.

Bakaldunaren sutaularijak gustija amafu ebaneko, subak alkafeekin itz-egiten asi ziran.

—¡Munduba dan edera! —sutautez (polboraz) egin-

đako txifinga batek esan eban—. Begiratu lařosa bełegi
ořei. Gustiz polıtak dira. Pozik nago luřalde askotatik
ibili nazalako. Mundu-ziař ibiltiak asko irakasten dau.

—Bakaldunaren baratza ezta munduba, txifinga
zentzunbako ori — kandela batek esan eutson—. Mun-
duba andija da ta iru egun biařko zenduzan osorik
ikusteko.

—Maře dogun lekuba da munduba gureztat —beste
txifinga batek esan eban—. Bařa onezkero eztago
mařasunik. Oleřkarijak (bertsolarijak) il dabe. Mařasu-
natzaz asko idatzi dabe ařanuok, řbai?, ta eztautse
orain iřnok ziřestuten. Ezta ori ařitzekua. Egizko mařa-
sunak ixil-ixilık jasaten (sufritzen) dau. Neronek be...
Bařa řzetarako esan? Edestixuna (nobelia) ezta orain-
gua, antziřnekua bařo.

—řOri da astakerija! —kandelak erantzun eban—.
Edestixuna ezta sekula ilten. Gure ezkonbařijok, esa-
terako, alkafen maře dira. Gauř goxian entzun dautsot
ori, kutxa baten neugaz sařtuta egon dan kartutxo bati.
Onek ziatz jakifen ei-dau beti Bakaldun eta sendi (pa-
mili) gustijaren bafi.

Alako baten estul gařatz ta siku bat adiřu zan.

Danak albora begiratu eben.

Estula ziziriko ařo bategandik etořan, zotz baten
erpiřian (puntan) lotuta eguan zizirikuagandik.

—řEjen!, řjen! —estařijagaz egin eban.

Lagun gustijak adi-adi geratu yakozan.

Zizirikua bařiro estula egin eta itz-egifen asi zan.

Ixiltxu ta leun, geldi-geldika egifen eban.

—řBakaldunaren semiak dauko zori ona! —esan
eban—. řNeu ořtik gora botako naben egunian bertan

ezkundu! *A propos* eginda be, elitzake beretzat obe ixango. Bakaldunaren semiak beti dauko zori ona.

—¿Zer, baña? —txifingeak esan eutson—. Nik uste neban geu jaurtingo gindubezala ezkonbarijen opaz.

—Ori ixango da zeuri dagokixuna: iñoren menbian egotia —Zizirikuak esan eban—. Bai, iñoren aufian buruba makurtutia ixango da zure bifa... Baña niri beste gauza bat dagokit. Ni Ziziriko ospetsuba naz, ta entzute andiko gurasuakandik natoñ. Ama, aldi atako sutautsezko txifingarik ospetsubena ixan zan. Gixonen aufian agertu zanian lenengoz, emeretzi bira (buelta) egin ebazan il baño lenago. Eta bira-biraka ebiñala, ixañ goñijak botaten euzan. Luzeran iru kana eukozan, eta sutautsik onenagaz eginda eguan. Ata, neu-lako Zizirikuua zan, jatofiz pantzetaña (prantzesa), baña. Goi-gora juan zan-eta, ikusliak uste ixan eben etzala beste bein lufera jatsiko. Baña jatsi zan, ¿jatsi ez? Ziziriko zintzua zan, ixakera onekua, ta ezaban gura olako atsekaberik ikuslloi emon. Jatsi zan lufera uñezko euri-añtian. Orduko izpafingijak (periodikuak) goraltz andiak egin eutsoezan.

—Esaten nebanez —Zizirikuak jafai eban, —esaten nebanez... ¿Zer esaten ete-neban, baña?

—Zure burubatzaz zengozan itz-egiten —kandelak erantzun eutson.

—Bai, ba. Ba-neban susmetan ardura andiko arazoren bat ixango zala.

* * *

liargija ta ixafak agertu ziran ortzian.

Bakaldunaren jauregitik eresijaren anotsa (oyar-tzuna) elduten zan.

Ezkonbarijok dantzan ebiltzan.

Edefto egiten eben-eta, azuzena zurijak buruba makuftu ta leyotik begiratzen eben. Eta urdamutuf (amapola) gofijak burubagaz soñubari lagun-egiten eutsen.

Gabeko amafak jo eben. Gero amaikak. Eta onen ufengo amabijak.

Orduban Bakaldunak sutaularijari dei-egin eutsen.

—Subak piztuten asi bialko dozu —agindu eban.

Sutaularija, beste gixon batzukin, subak egozan lekurantz zuzendu zan.

Bakotxak argi bat piztuta eroyan eskuban.

Benetan, ikuskixun edefa ixan zan.

—¡Juiss! ¡Juiss! —txifinga batek egiten eban, gira ta bira ebiñala.

—¡Bun! ¡Bun! —kandelak osteratzen.

—¡Aguf! —suzko borobilak (globuak) esan eban.

—¡Ban! ¡Ban! —trikitrakiak erantzuten eben.

Danok egon ziran edefto, Ziziriko Ospetsuba ixan -ezik.

Au ezo (bustita) eguan, negar asko egin ebalako. Eta jakina, ezin surik artu.

Beronek eukon gauzarik onena sutautsa zan. Baña malkuakin bustita, etzan ezetarako gauza.

Beste lagunak, bafiz, iriz ta destañez beti erabili ebazanak, ondo baño obeto bete eben biala.

—¡Edefto! ¡Edefto! —Bakaldunak iñuan.

Eta semiaren emaztiak bare-algara gozuak egiten euzan.

—Itxuraz, beste ereti (okasiño) obe baterako isten nabe — Zizirikuak esan eban—. Bai, orixe ixan bialf...

Eta buruba jasota iñoiz baño afokeri andijagoz, alde gustijetara begiratu eban.



Bijaramonian langiliak etofi ziran, itxulastuta egozan gauzak ondo ta zuzen ipinten.

—Niri aguf-egifen bidaltzen yausten batzorderik (komisiñorik) ixan bialf dok.. — Zizirikuak kolkorako esan eban—. Beti oi yuadan lez, andikiro aftuko yuat.

Eta buruba atzeruntz eginda, afpegi iluna ipiñi eban, zeozer oldoztuten (pentsetan) bai'legon.

Baña langiliak ezeben gure Zizirikua ikusi, alde -egin-afte.

—¡Ara! —euretarik batek esan eban—. ¡Beitu ziziriko txaf au!

Eta aftu ta baratzetik kanpora (afesi-ganetik) jaurti eban.

—¿Neu ziziriko *txafa*? —esan eban onek, aidian biraka ebiñala—. ¿Neu ziziriko *txafa*? ¡Ezin ori! Ziziriko *gafa* esan gurako yuan.

Eta afesi-ostian eguan basaz beteriko oxifera jausi zan.

—Egija esateko be, au etxagok ni bixifeko moduban —bañurako esan eban—. Itxuraz, igeretxe (balneario) dotoria dok, ta ona bidaldu nabe osatuten. Bai, ba,

kirijuak lefðu-agiñian yaukodazak-eta, atsedena (deskantsua) artu bía.

Ori esanda, begi zolijak eta jantzi oflegija (berdia) eukozan ugarazijo txikija beraganatz zuzendu zan.

—Lagun bárijak yaukoguzak —Ugarazijuok burubari egin eutson—. Bai, ba, baso-lakorik etxagok-eta... Zorijontsuba ixateko, euriya ta basea baño etxuadaz bía. ¿Gau? aratsaldian euriya ixango ete-yuagu? Bayetz uste yuat. Ortzia, baña, odei-barik yagok ¡Au tamala!

—¡Ejen! ¡Ejen! —Zizirikuak egin eban.

—¡Ori da abots atsegingafija! Ija niria baxen gozua. Ugarazijuak esan eutson Zizirikuari —Koroka-egitia soñurik samufena egitia da. Gau? gabian entzungo dauskuzu. Korta-aldeko zingiran jañ ta ilargija agertu -orduko asiko gara. Gure abestija gozo-samufa da-ta, ingurubetako gixonak-eta oetik jagifen dira guri entzuteko. Atzo esan eutson amari kortako gixonaren andreak, gau gustijan ezin ixan ebalorik egin geugatik. Au pozkafija da, ixan be, guretzat.

—¡Ejen! ¡Ejen! —Zizirikuak, asafez, befegin eban. Gogaro (umore) txafa eukon, zer esan ezekijala.

—¡Abots gozua zure abotsa (boza)! —Ugarazijuak esan eutson—. Gau? gabian zingirara etofiko zara, ¿jeta? Orain alabak ikusten nua. Sei alaba edeñ daukodaz, ¿bai?, ta inguru onetako piztijak iruntsiko ete -dabezan. bildurez nago. Tira, ba. Aguf. ¡A! Eskafik asko zure itzaldija dala-ta.

—¡Ze itzaldi ta itzaldi-oste! —Zizirikuak esan eban.— Nik eztot itzik esan, zeuk bakafik egin dozu-ta.

—Eta batobatek entzun bía —Ugarazijuak erantzun eutson—. Neuk bakafik itz-egitia asko atsegin

yat. Ofetara ezta astirik galtzen. Eta gañera, eztabaidarik ezin ixan.

—Niri eztabaidak atsegin yataz —Zizirikuak esan eban.

—Gusto txafekua zara, ba. Eztabaidak bada-ezpa-dako gixonak bakañik erabilten dabez. Andiki ta aberatsen aftian eztozu eztabaidarik entzungo. Agur dirautzut bafiro, alabak emetik daukadaz-ta.

Eta Ugarazijua, ugeñ egifen, andik jua zan.

—Lotsagalduko umia baño etzara —Zizirikuak esan eutson—. Eta azikera (edukaziño) onik eztaukozu. Niretatz iguingarijak ixaten dira norberen buruba goral-duteko baño itz-egifen eztabenak. Neuk, baña, orixe berori egin gura neuke... Ori da buruzalekerija. Eta buruzalekerijoi goñotogañija ixan bial nire antzeko notin (persona) apatz eta begikuentzat. Akatz ori kenduteko ni arñu bialko ninduben eredutzat: eredu (ejenplu) oberik ezin topau. Orain daukozu ereti ona ofetarako, laster Bakaldunaren jauregira atzera jua bialko dot-eta. Bakaldunaren etxian zintzo mate nabe. Ori erakusteko, auxe esan baño eztago: Bakaldunaren semia atzo nire opaz ezkondu zan. Zeuk, bialba, eztozu au uleñtuko, baseñikua zaralako.

—Alpeñik esaten dautsozu ori —oxin (pozu)-inguruban egaizka eñilan mamu (koko) batek esan eutson—. Alpeñ-alpeñik, bai, ugarazijua aspaldiñik jua zan-eta.

—Tira, ba. Ofegaz eztot ezer galduko. Berak galduko dau, bai bein —Zizirikuak erantzun eutson—. Ni enaz ixilduko berak entzuten eztaula-ta. Asko atsegin yat niri, burubari entzutia. Sañitan burubagaz itz-egifen dot luzaro. Adimen (talentu) andija daukot-eta, bein

baño geyagotan esaten dodanik be eztot uleftzen.

—Ofezkero, Pilosopijatzaz itz-egin bialko zeunke —kokuak esan eutson.

Eta beste-barik, onek alde-egin eban.

—¡Koko kirtenoi! ¡Oñtik juan eztok, ba!—Zizirikuak esan eban—. Uñian etxok safi-askotan eretirik eukiko neu-lako gixon jakitunagaz itz-egiteko. Baña etxaustak ardura. Nozonoz igafiko yoeck gixonak neuk yaukodañ zentzuna.

Ori esan eta pizkat geyago basa-bafura saftu-zan.

Berialaxe Ata zuri bat, igerika, etofi yakon.

Ata onek anka orijak eukozañ.

Ibilkera berezija eukon-eta, danak esaten eben ata poliña zala.

—¡Kua, kua, kua! —ateak egin eban—. ¡Zeuck daukozu itxura baregafija! ¿Olan jayo ete-ziñian, ala ezpiafen bat jazo yatzu?

—Igañten da, bai, basuañ bixi zarala, ata lotsabako ori —Zizirikuak erantzun eutson—. Bestelan jakingo zeunke nor nazañ. Baña ez jaklitia parkatuten dautzut. Ezin edonori eskatu nire malara eldutia. ¿Bakixu gero aidetik egaiz-egin daikedanik, ufezko eurijaren modura luñera jasteko?

—Ori baño ezpa-da, ezta gauza andija —Ateak esan eban—. Eztakit zetarako balijoko dautzun ofek. Beste gauza bat ixango litzake soluak goldez erabiliko ba'zenduz, idijak lez. Edo burdija batetik bestera eruañgo ba'zeu, zaldijak eruañ oi-dabañ lez. Edo artaldia zainduko ba'zendu, artzanorak lez. ¿Baña aidiañ ibili gira-biraka? ¡Ene bada-ta!

—Zu, gixon —Zizirikuak, afokeriz, erantzun eu-

tson—. Ikusiña daukot jakinge ta ziztriña zarala. Nire malako notiñak (persoñak) eztabe iñoren aurian buruba makutzen. Ni enaz jayo ezetarikoa bialik egiteko, ta gitxi-jago oindiño len aiatu dozuzanetarikorik. Of konpon idijak, zaldijak eta artzanorak (artzañen txakurak). Ni Ziziriko ospetsuba naz, jatofiz andiki ta zalduna. Beti uste ixan dot esku-lanak egokijak dirala beste zeregiñik eztaukentzat.

—Tira, ba —erantzun eutson Ateak, ixakera onekua ixanda gañera, iñogaz asaratzen etzañak—. *Bakotxak bere zorua darabil*. Dana-dala, poztuten naz ona bixiñen zatozalako.

—¿Ona bixiñen etofí? ¡Bai, zera! Ni bidaztija baño enaz, bidazti dotoria, ori bai. Eta leku oneri, aspektuteko alagalakua deritxot. Emen eztago nire antzeko lagunik. Auzo zikin-zataña baño ezta au. Lastef bigur-tuko naz Bakaldunaren jauregira. Oindiño gauza andiak egin bialko dodaz ludijan (munduban).

—Neuk be asmua artu neban bein, alduna (diputadua) ixateko —Ateak erantzun eutson— ¡Luñalde onetan ainbat gauza dagoz egiteko ta! Aldi luzia ezuala, batzar andija egin gendun emen, au, ori ta bestia eskatzeko. Baña ikusten danez, ezta ezer auferatu. Orain, efiko arazuak alde batera itxiña, etxian saftuta egoten naz, seme-alabak azten.

—Ni enaz jayo etxe-bañuban bixiteko, ba —Zizirikuak esan eutson—. Eta neu letxe, senide gustijak. Agertuten nazan lekubetan, danok begira geratzen yataz. Etxian saftuta bixitiak, bial dan baño lenago gixona zaftuten dau. Eta gorago dagozan arazuai ezin eldu.

—¡Gorago dagozan arazuak diñozu! ¡Orixe da gau-

za edera! —Ateak esan eban—. Baña oin igarten dot
gose andija nazala.

Eta oxin-ziaf jua zan, auxe egiten:

—¡Kua, kua, kua!

—¡Erdi ona, erdi ona! —Zizirikuak, didahez, esan
eutson—. ¡Gauza asko daukodaz oindiño esateko-ta!

Baña Ateak jaramonik ez.

—Poztuten nok jua dualako —kolkorako esan eban
Zizirikuak—. Nire malako gixona eztok.

Eta basa-baŕura geyago saŕtu zan.

Alako baten, txartes zurijakin jantziriko mutiko bi
oxiñera (pozura) uferatu ziran. Galdara bat eta eguŕ
batzuk ekaŕten ebezan.

—Aldundija-edo (Diputaziñua-edo) ixan biaŕko
dok— Zizirikuak, aŕopuztuta, esan eban.

Eta txairo ta zuzen-zuzen jaŕi zan.

—¡Ara! —mutiko batek esan eban—. Begitu zotz
zaŕ au. ¿Zelan aŕayo atonduko ete-zan onaño elduteko?

Eta basatik Zizirikua atara eben.

—¿Zotz zaŕa neu? —Zizirikuak pentsau eban—.
¡Ezin ori! Zotz aŕa esan gurako yua astakiŕo onek.
Zotz aŕa etxako edonori esaten. ¡Bai, bai!

—Sutara botako dogu —beste mutiŕak esan eban—,
galdarea irakiten ipiñi biaŕ dogu-ta.

Eta eguŕ-meta andija eginda, Zizirikua gañian ezari
eben. Gero su emon eutsoen.

—¡Auxe da edera! —Zizirikuak esan eban—. Egu-
nez su emon eta jaurtingo nayuek, danok ikusi
nagijen.

—Orain guazan lotara —mutikuak alkari esan eu-
tsoen—. Itxaŕtu-orduko, ura irakiten egongo da.

Eta bedaf-gañian etzunda, luak artu ebazan.
Zizirikua ezo-ezo (bustita) eguan-eta, asko belutu
zan suba artuten. Baña ibili ta ibili, su-artu eban.

—¡Ba-nua, ba-nua ortik ziaf! —didaf-egin eban—.
Bakit ixafak, ilargija ta eguzkija baño gorago igongo
nazala. Bakit....

—¡Piss! ¡Piss! ¡Piss!

Eta zuzen-zuzen, gorantz igon zan.

—¡Edefto! —esan eban— Olan igoten juango naz
betiko. ¡Auxe da ni-lako Ziziriko bati dagokijon abi
jadea!

Baña ezeban inok berau ikusten.

Gerotxubago, askura-antzeko gauza bat igafi eban
soñian.

—¡Ba-nua lefuten (eztanda-egiten)! Ludi gustijari
su emonda gero, zalaparta andija egingo dot. Eta urte
gustijan nigaz gomutauko dabe.

Egin-eginian be, une atan eztanda-egin eban.

—¡Ban! ¡Ban! ¡Ban! —sutautsak egin eban.

Eztanda egin, bai, baña inok entzun ez.

Galdara-onduan lotan egozan mutilak be ezeben
ezer entzun.

Eztanda-eginda gero, zotza bakañik geratu zan.

Zotz au jausi zan oxin-aldian egurastuten ebian
Antzañ baten gañera.

—¡Ene bada! —Antzañak esan eban—. ¿Zotzak
jausten asi dozak, ala?

Eta, bildufez, uretara sañtu zan.

—¿Eneban esaten, ba, mundu gustija nigaz ikara-
tuko zala? —Zizirikuak esan eban.

Eta orixe eginda, il zan.



UME IXAÑA





GUŖGIN bi etxerantz joyazan baso-ziaf.

Neguko gau txafa zan.

Luŕa ta zugatzak edufez beterik egozan.

Ibai ta latsak (erëkak) lefuta aurkitzen ziran.

Menditik bera moŕ-moŕ jausten zan urari be, Otz-Bakaldunak mosu-egin eutson, ¿bai?, ta ura letu zan.

Otz andija zalako, basaberiak (basoko aberiak) eze-kijen zer egin.

—¡Txut! —iñuan otsuak, baso-erditik ebiñala, buz-tana anka-artian eskutauta—. ¡Auxe da otza, miña afayetan! ¿Zer dala-ta eztau gobernubak ezer egiten otz au gitxiñuteko?

—¡Txoñotxiotxi! —abestuten eben txorijak—. Iñda dago luŕa, zapi zuriñagaz estalduta.

—Luŕa ez konduten ei-dua. Auxe ei-da eztegurako jantzija —usuak alkañi esaten eutsoen.

—¡Ofek astakeri galantak dira! —otsuak, asañez, esan eban—. Ostera be dirautzubet, gusti au gobernubaren eruba dala. Eta ziñestu nai ezpa-daustazube, iruntsi biarño zaitubet.

—Tira, ba. Ofegatik ez asañatu —landara batek

esan eban— Dana-dala, gustijok autoftu biaf dogu
otz andija dala.

Eta orixe zan, benetan.

Ezin otz andijagorik ixan.

Izai-(abeto)-baruban bixi ziran katagofijak alkafi
sufa igortzifen eutsoen, berotuteko.

Kuyak (konejuak) zuluana saftu ta kukuftuten ziran,
kanpora begiratu barik.

Gautxorijak ziran, bariz, pozik ebiltzanak.

Egakijak (lumak) letuta eukezan. Baña ofi begiratu
barik, begi orijak eta zabalak batera-bestera erabili ta
alkafi dei-egiten eutsoen:

—¡Tu-juit, tu-ju! ¡Tu-juit, tu-ju! ¡Auxe da eguraldi
edefa!

* * *

Egurgin bijok aufera joyazan, atzamañai putz-eginaz
ta oski (zapata) lodijakin edufa zapaldubaz.

Bein, zulo sakon batera jausi ziran. Eta bertatik
zuri-zuri eginda uften biaf ixan eben, efotarijen
antzera.

Beste bein, letuta eguan oxin (pozu) baten lañapast
-egin eta egufak luñera jausi yakezan.

Gerotxubago, ikaratu ziran gustiz, etxerako bidia
galduta eukelakuan.

Baña bidaztijen zaindarija dan Martin Deunari otoi
(efegu)-egin eta baso-ertzera eldu ziran.

Eta pozik eldu be, bixi ziran baseñiko argijak andik
ikusten ebezan-eta.

Añezkero bafe-algarak egin ebezan.

Eta luía, zidafezko lorea irudi yaken. Eta ilargija
urézko lorea.

Oñaliño, bañe-eginda gero estutu ziran, txiruak
(pobriak) zirala gogoratuta.

Eta euretarik batek bestiari esan eutson:

—¿Zer dala-ta poztu, mundu onetako bixitxa gixon
aberatsentzat bakafik dala ikusiña, ta ez gu-lako landef-
entzat? Obe litzakigu, ementxe bertan otzez iltia.

— Gixon batzuk lafegi ta bestiak gitxijegi dauke
—lagunak erantzun eutson—. Baña danok il bíañ.

Auxe esaten egozalarik, gauza ikuskafija uafu eben.

Ixañ dizdiratsu bat ortzetik (zerutik) sarats-añtera
jausi zan.

— ¡Nok topauko ete-leuke lapikobete uré ori! —bi-
jok batera esan eben, ariñeketan asiña.

Euretarik bat bestia baño ariñago joyan. Eta sarats
-añtetik saftuta, beste aldera eldu zan. Eduñ-gañian
jausiña eguan uré-margodun (koloredun) gauza bat
ikusi eban.

Gauza au eskubetan añtu ta ikusi eban urézko jan-
tzabal (kapa) edeña zala, ixafak ergalunduta (bordata)
eukona. Jantzabal au toloztuta eguan.

Gure gixonak orduban didañ-egin eutson lagunari,
zerutik jausiriko gordaluba (tesorua) topau ebala esa-
naz. Eta laguna beragana elduta, bijok eduñ-gañian
jezafi ta jantzabala zabaldu eben, urézko amaseikuak
-edo topauko ebeزالakuan.

Baña ja ixan zan atsekabia!

Jantzabalak ezeukon urerik, ez ezetariko gordalurik.
Bakañ-bakafik eukon, lo gozuan eguan umetxu bat.

Eta lagun batek bestiari esan eutson:

—¡Geuria ixan da etsipen (desengaño) andija! Zori txafa daukogu. ¿Zetarako bialko ete-gendun orain olako umerik? Bertan-bera itxi (laga) bialko dogu, txiruak garalako ta umiak eufez daukoguzalako. Gure umioi ogirik emon-eziñik ibiltan garanezkero, ¿zelan ařayo atonduko ete-giñian iñorenari emoteko?

Baña beste egurgiñak erantzun eutson:

—Ez, zifalkeri andija ixango litzake, olako umetxu samufik edur-ařtian gosez ta otzez ilten istia. Eta zeu baxen txirua ixan eta zeuk beste ume euki-afen, etxera cruango dot umetxu au, emaztiak zaindu ta azi dagijan.

Eta umia besuetan ařtu ta jantzabalaz alik ondoen estalduta, etxerantz zuzendu zan, lagunak bere lepotik baře-egiten ebala.

Basefira elduta, lagunak esan eutson gure gixonari:

—Zeuk umia daruazu, ¿ezta? Ekafi, ba, jantzabala. Bakixu, gordalubagaz erdi-bana egingo gendubala esan gebala.

Baña egurgin zintzuak erantzun eutson:

—Ezin ori. Jantzabala ezta zeuria, ez niria, umiar-ena baño.

Eta agur-egin ondoren, etxera juan eta atian jo eban.

Emaztiak atia zabaldu eban. Eta senafa osasunaz ta ondo etofela ikusiřa, besařkatu eban.

Egur-pilua sorbaldatik luřera eratsiten lagundu ta oskijetan (zapatetan) eukon edurřa kendu eutson.

Baña egurgiñak esan eutson:

—Basuan gauza bat aurkiřu dot, ¿bai?, ta emen dakatzut, ondo zaindu dagixun.

—¿Zer da, baña? —emaztiak itandu eutson—. Arin esan, gurian gustifariko gauzak bial dira-ta.

Gixonak, orduban, jantzabala zabaldu ta lo eguan umetxuba erakutsi eutson.

—¡Ut órlik, zorigaizto! —emaztiak, asafez, esan eutson—. ¿Gure umiai jaten emon-eziñik gabiltzalarik, beste umerik dakastazu? ¡Batek bai-daki gero, beron-egaz zori txafa etoriko ete-danik! ¿Baña zelan demon-tre konponduko ete-gara berau azteko?

—Ume au ume ixafa da.

Eta esan eutson zelan aufkitu eban.

Baña emaztia, baketu-biañian amuragotu zan. Eta senafari, gafazika, esan eutson:

—¿Gure umiai emoteko beste ogi eztaukogu, ta iñorenari emon bialko ete-dautsogu? ¿Zer ixango da gugaz? ¿Nok emongo ete-dausku jaten?

—Ez ardurarik ixan. Jaungoikua'k danok zainduten gauz (gaitu). Ormatxorijai be ¿ez-ete-dautse jaten emoten? —senafak erantzun eutson.

* * *

Basotiko axe otza saftzen zan bafura, zabalik eguan atetik.

Emaztiak, dardarez, gixonari esan eutson:

—Itxixu ate ori. Axe otza saftzen dala ¿ez-ete-dozu ikusten?

—Bijotz gogorik dagon etxera, axe otza baño ezta saftu bial —egurgiñak esan eban.

Emaztia, ezer erantzun barik, su-ondora uferatu zan.

Andik lastef, begijak malkoz beterik eukozala, senafari begiratu eutson.

Gixonak, orduban, umia aitu ta emaztiaren altzuan ezafi eban.

Onek mosu bat emon eutsen. Eta lotan ipiñi eban etxeko umerik txikijena lo eguan siaskatxuban (kumatzuban).

Ufengo goxian egurgiñak ufezko jantzabala aitu ta kutxa baten saitu eban.

Umiak lepotik dingilizka eukon anbarezko idustuna be emaztiak aitu ta kutxan jabon eban.

* * *

Ume Ixafa egurgiñaren umiak azten zan Eurekin jan eta eurrekin ibiltzen zan jolastuten (olgetan).

Geruago ume edefagua zan. Basefiko gustijak ikaratuta egozan Ume Ixafaren edeftasunagaz.

Margo edo kolore zurija eukon, bolija (marfila)-lakua. Ule kizkufa zan bere ulia. Ezpanak eukozan kerexa-antzera. Eta begijak, argi-argijak.

Edeftasunok, baña, kaltia baño ezeutsen ekañi.

Ume afo, ankeña ta berekoya egin zan.

Egurgiñaren semiak eta basefiko umiak destañez erabilten ebazan. Euroi esaten eutsen, eskale ta landef batzuk baño etzirala. Bera, bafiz, andikijen ondorengua zan, ixaf batetik etofija. Ume gustijak jopubak (eskla-buak) lez erabilten ebazan.

Ez eskekuentzat, ez itxubentzat, ez efenentzat ezeban efukirik ixaten. Bafiz, afika-egiten eutsen, eri-mugaraño euron atzetik juanaz.

Bere bildufez etzan basefi atara ogi edo diru-eske eskalerik saitzen.

Edef-zalia zari-eta, lepokef, elbari, efen eta ostan-
tzequai ifi ta ifiaka egiten eutsezan.

Buruba bakarik mate eban.

Eta udan, abadiaren patinera juan eta atsegiñez
ikusten eban arpegijaren edertasuna ur-ispiluban.

Eguñgiñak eta emaztiak safi agiraka-egin eta esaten
eutsoen:

—Ezkenduban zeugaz geuk egin, geidiagaz (lagun
-urkuagaz) egiten dozunik. ¿Zer dala-ta zara ain ankefa
erukarijak diran notiñakin (lagunakin)?

Bein baño geyagotan abadiak esaten eutson:

—Eulija arebea dozu. Ez miñik egin, ba. Baso-ziaf
dabiltzan txorijak azke (libre) dira: ez kendu azkatasuna.
Jaungoikua'k zizarija (lonbriza) ta satorfa egin euzan.
Eta bakotxari bere ardurea ta lana emon eutsozan. ¿Nor
zara zeu, ba, edonori miñik egiteko? Basoko artaldiak
be Jaungoikua onesten (bedeinkatuten) dabe. Eta zeuk
¿eztozu olakorik egingo?

Baña Ume Ixafak jaramonik ez.

Abadiaren esanak entzun eta lagunakana biguñtuten
zan, gura eban lez oneik erabilteko.

Lagunok atzetik juaten yakozan beti, edefa zalako
ta izta (anka) ariñak eukozalako. Orez gañera, dantza
-egiten eta txilibituba jotzen ekijan sekuleko edef-
toen.

Ume Ixafak bidalduten ebazan lekura, lagunak,
txitik esan-barik, juan bial ixaten eben, eta aginduten
eutsen gustija be beriala egin.

Eta Ume Ixafak, zumel zofotzagaz abere bati
begijak ataraten eutsozarian, lagunok bañe-egiten
eben. Eta eskeko ta usteridunai (lepradunai) afika

-egiten ba-eutsen be, astakirtenok bare-algarak egiten ebezan.

Ibili ta ibili, bera baxen ankefak ixatera eldu ziran. Bera baxen lotsagaldukuak.

* * *

Alako baten, andera eskale bat basefira eldu zan. Janzkija ufatuta ta ofiak odolez beterik eukoizan, bide txafetatik luzaro ibilija zan-eta.

Itxura negafarija eukon.

Nekatuta etofalako, gaztañondo baten azpijan jezarfi biar ixan zan atsedenduten (deskantsua afitzen).

Baña Ume Ixafak emakume efukarija ikusi ta lagunai esan eutsen:

—Ara, beitu zugatz aren azpijan jezarfita dagon eskale ziztrin-loi a..... Tira, neugaz etofi, bertatik alde-eragiteko, zikin-zatafa da-ta.

Eta bere ondora elduta, afijak bota ta ifi-egin eutson.

Andera gaxuak, ikaraz, begirada samufak jauftiten eutsozan.

Egufiginak ikusi eban ume ankefak egiten ebana. Eta beroni eldu ta agiraka-egin eutson, esanaz:

—Egiz esan leike bijotz gogofekua zarala ta inoren efukirik eztaukozula. ¿Zer egin ete-dautzu andera efukafi ofek, ofen txarfo erabilteko?

Ume Ixafak, asafez gofituta, erantzun eutson:

—¿Eta nor ete-zara zu, olako konturik niri afitzeko? Zeuk enozu seme ta eztautzut lotsarik zof.

—Egija diñozu —gixonak esan eban—. Oratiño,

erukija erakutsi neutzun, basuan aufkitu zindudazanian.

Andera eskalia itz oneik entzun eta lufera jausi zan konorte barik.

Eguŕgiñak berau aftu ta etxera eruan eban. Eta emaztiak zintzoro zaindu be bai.

Konortera etofi zanian, jaten eta edaten emon gura ixan eutsoen.

Baña andereak, jateko-edatekorik ukutu-barik, eguŕgiñari ifandu eutson:

—¿Eztozu len esan umia basuan aufkitu zendubala?
¿Noiz ixan ete-zan ori: orain amaf urte?

Eta eguŕgiñak erantzun eban:

—Bai, basuan topau neban orain amaf urte.

—¿Eta etzenduban beragaz ikufik (señalik) aufkitu?
¿Umiak ezeukon anbarezko idustunik? ¿Ezeguan estalduta ufezko eunagaz egindako jantzabal bategaz, ixaf asko egalunduta (bordata) eukozanaz?

—Bai orixe. Zeuk diñozun letxe eguan.

Eta kutxatik jantzabala ta idustuna atarata, erakutsi eutsozan.

Anderesak gauza ofeik ikusifa, pozaren pozez, negarari emon eutson. Orduban esan eban:

—Orixe dot neure semia, basuan galdu nebana. Aŕen dei-egijozube, bere bila ludi (mundu)-ziaf nabil-eta.

Eguŕgiñak eta emaztiak Ume Ixarari didaf-egin eta esan eutsoen:

—Zuaz etxera ta ama aufkituko dozu, begira dagokixu-ta.

Mutla arifeketan eta pozik etxera saftu zan.

Baña itxaroten egokijona ikusi ebanian, bařeka asi ta destańez esan eutson:

—¿Nun ete-dago ama, bańa? Emen eztakust eskale iguingafi bat bańo.

Eta eskaliak erantzun eutson:

—Neu nozu ama.

—Zoratuta zagoz, itxuraz —Ume Ixařak, amufu bixiz, esan eutson—. Nik etzaitut ama, zeu eskeko motz eta loya zara-ta. ¡Alde emetik, ba, olako arpegi zikin -iguingafirik beste bein ez-ikusteko!

—Zeu zara, bai, ene semetxuba, basuan galdu zindudazana —andriak beřesan eutson.

Eta bere ařian auzpeztu ta besuak luzatu eutsozan.

—Lapurak ostu ta laga zindubezan, gero gosez il zedizantzat —ama eřukafijok esan eutson—. Bańa orain ikusi ta ezagutu zaut. Bai ta gańian zeukozan ikufak (seńaliak), uřezko jantzabala ta anbarezko idustuna be ikusi ta ezautu dodaz. Jaungoikuafen eskatzen dautzut neugaz etořteko, ludi-ziař zure bila ibili naz-ta. Etoři zadiz nigaz, ene semia, zure mařasunaren biař-ixan andijan nagolako.

Baña Ume Ixařa zutunik eta tente eguan, bijotzeko atiak itxiřa. Ama zorigaiztokuak negařari emoten eutson.

Azkenez, Ume Ixařak itz-egin eban. Eta gogoř ta gařatz egin be.

—Benetan nire ama ba'zintzaz —esan eutson—, obeto egingo zeunke olako itxura magařgařijaz nigana ez etoři. Nik uste neban ixařen baten semia ixango nintzala, ez zu-lako eskale batena, dińozunez. ¡Ut ořtik, ba, otera be ikusi etzagidazan!

—¡Oi, ene semia! —andereak, zotifñez, esan eutson—. ¿Ez-ete-daustazu, ni jua baño lenago, mosurik emongo? ¡Zeu ikusteko jasan (sufridu) blaí ixa dodana!

—Ez, eztautzut mosurik egingo —Ume Ixañak esan eutson—. Iguingafijegija zara, ¿bai?, ta nayago neuke suge bateri mosurik emon zeuri baño.

Anderca, ori entzunda, jagi ta basorantz abijau zan, negaí baten.

Ume Ixañak, urin ikusi ebanian, poz andija aitu eban.

Eta lagunakana atzera jua zan, jolastuten.

Baña oneik, ikusi ebanian, bere lepotik bañe-egin eta esan eutsoen:

—Kunkuna (sapuba) baxen motz eta lañasugia (vibora) baño iguingafijagua zara. ¡Alde emetik, zeugaz eztogu jokatu gura-ta!

Eta jauñti eben euren ondotik.

Ume Ixañak betozkua ipiñi ta kolkorako esan eban:

—¿Zer ete-yiñuek ofeik? Patiñera juango nok, ur -ispiluban aripegija ikusten. Eta urak erakutsiko yaustak betiko edertasuna.

Patiñera elduta, uretara begiratu eban. Baña ja zan ixatekua!

Aripegija kunkunarena lakua eukon. Eta gorputza lañasuge baten antzekua.

Orduban bedaí-gañian etzun eta negaí samiñez esan eban:

—Itxuraz, Jaungoikua'k zigotau (kastigau) nai ixa yaustak, oben (pekatu) andija egin yuadalako. Ama

etxuat artu gura ixan, eta nire ondotik alde-eragin yautsot. Afua ta ankefa ixan nayakok. Baña orain mundu-ziar bere bila juango nok. Eta berau idoro (topau) arte, enok geldituko.

Orduban eguñgiñaren alabatxubak berari eldu ta eskubaz sorbalda-gañian ukututa, esan eutson:

—Lengo edefitasuna galdu dozula-ta ez ardurarik ixan. Geugaz lotu zadiz ta neuk beintzat eztautzut ifirik (burlarik) egingo.

Baña mutilak erantzun eutson:

—Ez, enaz emen geratuko. Amagaz bijotz gogofa ixan nazalako, Jaungoikua'k zigortau nau. Juan biar dot, ba, ludi gustifik, ama idoro ta bere azketsa (parka-ziñua) jaritsi-arte.

Eta basora uftenda, amari didar-egiten eutson.

Baña alpefik.

Egun gustijan ariñeketan eta deika ibili zan.

Eguzkija ostendu zanian, ofbel-artera, deskantsua artzen, etzun zan.

Basaberiak eta txorijak igeska ebilkijozan, seme ankefa ixan zalako. Eta burubagaz bakar-bakarlik geratu zan.

Ufengo goxian jagi ta zugatzetatiko ofi batzuk artu ta jan ebazan.

Eta bidiari bafiro ekin eutson, negafez urtuta.

Bidian aufkitzen ebazan ixaki gustijai itanduten eutsen ia bere ama ikusita ete-euken.

Satofari esan eutson:

—Luf-azpitik ibiltan zaran sator ofek, esan: ¿nire ama an ete-dago?

Eta satorak erantzun eutson:

—¿Zelan jakingo neban ori, zeuk begijak atara zeustazan-eta?

Kardantxorijari esan eutson:

—Zugatz-ganetik eta baso-ziaf egaiz egin daikezun-ezkero, esan: ¿nire ama ikusi ete-dozu?

Eta kardantxorijak erantzun eutson:

—Egalak mozta zeustazan-eta, ¿zelan atonduko ete-nintzan egaiz-egiteko?

Izai-baruban bakañ-bakañik bixi zan katagofijari itandu eutson:

—¿Nire ama ikusi ete-dozu? ¿Nun egon leiken bakixu?

Eta katagofijak erantzun eutson:

—Zeuk umiak il zeustazan. ¿Zure etxeuak be il gura ete-dozuz?

Ume Ixañak negar ta negar egiten eban. Eta buruba makuñtuta, danoi azketsa eskatzen eutsen.

Eta beti auñera ta auñera, amaren bila.

Ibili ta ibili, basoko beste aldera eldu ta ibañera jatsi zan.

Uri ta baseñi-añtetik joyanian, umiak iri-egin eta añijak botaten eutsoezan.

Baseñiñak itxi ez aletegi ta ukulubetan lorik egiten.

Ezeban iñok beraganako erukirik erakusten.

Iru urtetan ibili zan olan. Baña alpeñik, amaren bafirik ezeutsoen emoten-eta.

Safi iruditen yakon, ama agertzen yakola urundik. Eta orduban, berari deika, atzetik juaten yakon, bideko añijak ofiak mindu ta odoletan ipiñi-añen. Baña ezin iñoiz be amari eldu.

Iru urtiotan ludi-ziaf ibili zan, nekez ta miñez ba-da be. Eta orduban ikusi ta ikasi eban munduko gixonik asko afluak eta gaiztuak zirala, bera iñoiz ixan zan -lakoxiak.

* * *

Goiz baten afesiz (afi-esiz) inguraturiko guturi (ciudad) batera eldu zan.

Gustiz nekatuta eguan-eta, bertora saftu gura ixan eban.

Baña atia zainduten egozan gudarijak (soldauak), abots gañatzez, itandu eutsoen:

—¿Zetan zatoz ona?

—Amaren bila nabil —mutilak erantzun eban—. Mesedez eskatzen dautzuket guturira saftzen itxi nagixuben, bertan ete-dagon ikusteko.

Gudarijak, baño, lepotik bañe-egin eutsoen.

Euretarik batek esan eutson:

—Uste dot neuk, ama ez tala poztuko zeu ikustiaz, zingiretako kunkuna baño motzagua ta basa-aftian nañezka ibiltan dan lañasugia baño iguingañijagua zara-lako. ¡Alde emetik! Zure ama ezta guturi onetan bixi.

Beste gudarijak itandu eutson:

—¿Nor ete-da zure ama ta zer dala-ta zabiltz bere bila?

Ume Ixafak erantzun eban:

—Ama da neu-lako eskekua. Bein txafto erabili neban, bial zan baño gogoñago. Añen guturira saftzen itxi nagixube, azketsi (parkatu) dagistan obena, emen ba-dago beintzat.

Baña gudarijak ezpatea atara ta jo egin eutson.



Ume erukarijok alde-egiten ebala, beste gudari batek eldu ta lagunai ifandu eutsen ia nor ete-zan mutil iguingafi a.

—Eskale bat baño ezta, beste eskale baten semia. Nai-ta-ez emetik alde-eragin biaz ixan dautsogu.

—¿Zer dala-ta? —bafeka esan eban—. Mutil ori joputzat (esklabutzat) salduko geunke, ¿bai?, ta dirubaz ardao-dangada ona edan.

Eta bertatik igaroten zan agure malmutz batek, ori entzunda, gudarijoi esan eutsen:

—Saldu gura ba-daustazube, neuk erosiko dautzubet.

Diruba emon eta Ume Ixaña eskutik artuta, guturira saftu eban.

Kalerik-kale luzaro ibilita gero, ate txiki zañ batera eldu ziran.

Agureak atia ukutu ta zabaldu zan.

Zurubi (eskilera) batetik jatsi ta itxura txafeko baratz batera jo eben.

Agureak Ume Ixañari begijak estaldu ta bultz-egin eutson, auñera juateko.

Begi-auñeko zapija kendu eutsonian, espetxe (kartzel)-antzeko gela ilunian ikusi eban buruba gure mutilak.

Agureak, orduban, auñan ogi-zati bat ipiñi ta esan eutson:

—Jan egixu.

Eta pitxarbate ur ipiñi ta esan esan eutson:

—Edan egixu.

Umiak jan-edan ebanian, agureak alde-egin eban, atia giltzagaz ondo itxiñta gero.

Bijaramoneko goxian agureak (Libia'ko zorgiñik malmutzenak) txakira (gelara) saftu ta Ume Ixañari esan eutson:

—Emetik ufun eztagon oyan (baso) baten iru txindī edo diru dagoz. Bata ufe zurizkua da, bestia ufe orizkua ta irugañena ufe gotizkua. Gaur bertan ekafi bialko daustazu ufe zurizko txindija. Ekañten ezpa-dozu, astiñaldi galanta emongo dautzut. Zuaz len-bai-len. Iluntzijan baratzeko atian egongo nayatzu begira. Kontuz ibili ufe zuriya ekañten, bestelan txañto ibiliko zara-ta. Jopuba zaitut, guturiko atian erosi zindudazalako.

Eta umiari begijak estalduta, baratzetik ziañ eruan eban. Eta zurubitik eruanda, kale-erdijan itxi eban

* * *

Uma Ixaña guturiko atetik uñten eta zorgiñak esandako oyanera eldu zan.

Kanpotik begiratuta itxura polifa eukon. Edonok esango eban txori abeslariz (kantariz) ta lora usaindunez beterik egongo zala. Oñegatik mutila pozik saftu zan bertara.

Baña saftuta beriala igafi eban sastraka ta sasijak baño ezeukozala.

Asunak zizti-zazta egiten eutsoen. Eta kardaberek oñetan saftuten yakozan.

Gure ume gaxua naigabez eguan.

Goxetik iluntzirafte oyanekeo bazteñ gustijak arakatu, baña ufe zurizko dirurik agiri ez.

Eguzkija mendi-ostez jatsifa, guturirantz zuzendu

zan, negaf baten, gauza onik etofiko etxakola igarten ebalako.

Oyan-ertzera elduta, gafazi bat entzun eban.

Ara begiratu ta erbi bat ikusi eban, lakijuan jausifa.

Umia erbijagaz efukitu zan. Eta lakijotik azkatu eban, esanaz:

—Jopu efukafi bat baño enaz. Baña azkatasuna emongo dautzut zeuri.

Erbijak erantzun eutson:

—Emoten daustazun azkatasun onen ordezt, zer emongo ete-neuskixu, baña?

Ume Ixañak erantzun eban:

—Ufe zurizko txindi baten bila nabil, eta ezin topau. Ugazabari eruaten ezpa-dautsot, gogof astinduko nau.

—Etofi nigaz —erbijak esan eutson—. Txindi ori dagou lekura eruango zaitut. Bakit nun eta zetarako dagon.

Ume Ixaña erbijagaz juan zan.

Eta arte baten zuluan ufe zurizko txindija ikusi eban.

Pozet beterik aftu ta erbijari esan eutson:

—Egite on baten ordezt (truke) beste egite on bat egin daustazu. Gauza onik egin ba-dautzut be, obia egin daustazu zeuk.

—Ez —erbijak erantzun eban—. Nik eztautzut egin, zeuk egin daustazuna baño.

Eta ariñeketa baten aldendu zan.

Ume Ixaña guturirantz abijau zan.

Guturi-atian gixon usteridun (lepradun) bat aufkitu eban.

Arpegija estalduta eukon eun bategaz ta onen zulo

bijetatik begijak, txingarak lakuak, ikusten yakozan.

Umia ikusita, zurezko katilubagaz luñian jo ta aña-nari eranginda gero, dei-egin eutson, esanaz:

—Txindirik emoidazu, Jaungoikuaren. Bestelan ilgo naz. Guturitik bota nabe; ¿bai?, ta ezta iñor nigaz efukituten.

—Bai —Umiak esan eutson—, baña nik eztaukot diru bat baño. Eta ugazabari eruaten ezpa-dautsot, joko nau, joputzat nauko-ta.

Baña usteriduna eske ta eske egon yakon. Eta Ume Ixarak, beronegaz efukituta, ufe zurizko diruba emon eutson.

Eta zorgiñaren etxera eldu zanian, onek atia zabaldu ta ifandu eutson:

—¿Ba-dakazu ufe zurizko txindija?

Umiak erantzun eutson:

—Ez, eztaukat.

Agureak, orduban, zartada batzuk emon eutsozan. Eta jan-edateko, azpila (platera) ta pitxafa utzik aurkeztu eutsozan.

Ufengo goxian zorgiñak esan eutson:

—Gaur ezpa-dakastazu ufe orizko txindija, betiko joputzat eukiko zaitut.

Umia oyanera juan eta egun gustijan ibili zan batera ta bestera, ufe orizko dirubaren bila. Baña ezin topau.

Eguzkija ostendu zanian negañari emon eutson.

Negañez egualarik, lengo erbija eldu yakon.

—¿Zer dala-ta nega-egiten dozu? ¿Zeren bila zabiltz orain? —erbijak ifandu eutson.

Eta Ume Ixarak erantzun eban:

—Emen eskutauta dagon ufe orizko txindijaren bila

nabil. Idoroten ezpa-dot, ugazabak jo ta betiko joput-
zat aŕtuko nau.

—Etoŕi nigaz —erbijak esan eutson.

Eta oyan-ziaf bijok alkaŕegaz juañ ziran, oxin (pozu)
batera jo-aŕte. Oxinñian bertan eguañ uŕe orizko txindija.

—Eskafik asko, erbi laztana. Auxe da zeuk egiteñ
daustazun bigaŕen mesedia.

—Zeu ixañ ziñan nigaz eŕukitu ziñan lenengua—
erbijak esan eutson. Eta arin juañ zan.

Ume Ixaŕa uŕe orizko txindija aŕtu ta sakelian saŕ-
tuta, guturirantz zuzendu zan.

Baña gixon usteridunak ikusi eban. Eta aurian auz-
peztu yakon, esanaz:

—¡Emoidazu, Jaungoikuafen, txindirik! Ostantzian,
ilgo naz.

Ume Ixaŕak erantzun eutson:

—Aldian eztaukot uŕe orizko txindi bat baño. Baña
ugazabari emoten ezpa-dautsot, jo ta betiko joputzat
etsiko nau.

Usteriduna, baña, eske ta eske ebilkijon-eta, umiak,
beragaz eŕnkituta, uŕe orizko diruba emon eutson.

* * *

Agurearen etxera elduta, onek atia zabaldu ta ifandu
eutson:

—¿Uŕe orizko txindija ba-dakazu?

—Ez, eztakat —Umiak erantzun eutson.

Zorgiñak orduban zartada gogofak emon eutsozan.
Eta estuntzaz (katiáz) lotuta, zulo baten saŕtu eban.

Uŕengo goxian agureak etoŕi ta esan eutson:

—Gaur ba-dakastazu ufe gorizko txindija, azkata-suna emongo dautzut. Baña ostantzian, ilgo zaitut.

Ume Ixafa oyanera juan eta egun gustijan ibili zan ufe gorizko txindijaren bila.

Baña alpefik.

Iluntzijan jezafi ta negarez asi zan.

Eta negafka egualarik, erbija etofi yakon, auxe esaten:

—Biaf dozun ufe gorizko txindija, orko aldetik dagon leiz sakonian aufkitzen da. Orixe dala-ta ez negafik egin, bafe gozua baño.

—¿Zegaz ordainduko (pagauko) ete-dautzut irugafen eskar zu? ¡Zeu ixan zara ona niretzat!

—Zeu ixan ziñan nigaz efukiñu ziñan lenengua—erbijak esan eban. Eta beste-barik, ariñeketan asi zan, anka-joko galantan.

Ume Ixafak lexara saftu ta baztef baten idoro eban ufe gorizko txindija.

Eta sakelera saftuta gero, guturira zuzendu zan.

Gixon usteriduna bidera urten yakon. Eta oñetan auzpeztuta, oyuka esan eutson:

—Emoistazu ufe gorizko txindija, bestelan il biafko naz-ta.

Umia oster a be efukiñu zan. Eta ufezko diruba emon eutson, esanaz:

—Zure biafa, itxuraz, niria baño andijagua da.

Oñatiño, baña, iñun (triste) jafi zan, ugazabak txarño crabiliko ebalakuan

* * *

Baña guturiko atetik bañura sartzen zala, gudar-
ijak buruba makur-makur egin eta esan eutsoen:

—Gustiz edera da gure Jauna.

Eta gixataldiak (gixoztiak), bere atzetik juanda,
batera esaten eban:

—Uñan, ludi gustijan eztago bera-lako mutil edefik.

Ume Ixafak, orixe entzunda, negafari emon eutson,
esaten:

—Nire lepotik bare-egiten dabe, itxuraz.

Gixataldia geruago andijagotu zan-eta, bide batetik
juan-biañan bestetik juan zan mutila.

Pizkat ibilita gero, jauregi ikuskatija eguan zelaira
jo eban.

Berialako baten bertako ate nagusija zabaldu zan.
Eta ate onetatik uñten ziran zaldun eta agintarijak bera-
gana eldu ta, auzpeztuta, esan eutsoen:

—Zeu zara itxaroten gendun gure Jauna, Bakaldu-
naren Semia.

Ume Ixafak erantzun eutsen:

—Ni enaz Bakaldunaren semia, andera eskale
batena baño. ¿Eta polita nazanik diñozube, motza ta
zataña ixanda?

Orduban gudari batek ikurdija (eskudua) jaso ta
esan eban:

—¿Edera eztala gure Jaunak diño?

Ume Ixafak ikurdijari begiratu ta ikusi eban lengo
itxura edera eukola. Begijetan ikusten eban, len ikus-
ten ezebana.

Eta jauparijak (abadiak) eta agintarijak bere aurian
belaunbikotu ta esan eutsoen:

—Lendik iragariña eguan gauko egunian etoriko

zala gure Bakaldun bafija. Aftu egixuz, ba, ufe-zigofa ta burestuna (zetrúa ta koroya), ta emetik aufera ixan zadiz gure Bakalduna.

Baña mutilak erantzun eutsen:

—Ni enaz ofetarako duña, sórtu ninduban ama gaiztetsi nebalako. Eta ezin egon berau idoro ta azketza jadetsi-afte. Itxi nagixube, ba, juaten. Ludi-ziáf ibili bíaí dot.

Eta orixe iñuala, guturiko atera jotén eban kalera begira jafi zan.

Une atan, gudari-inguruban eguan gixatalde-aftian ikusi eban ama eskalia. Onen onduan agura usteriduna aufkitzen zan.

Pozik eta ariñeketa baten eurokana juan zan. Eta luñian auzpeztuta, amaren oñak malkuakin busti ebazan.

Buruba makuí-makuí eginda ta intziriz, bijotza leítu-zorijan, amari esan eutson:

—¡Ama, arúa ta ankefa nintzan zorigaiztoko aldi atan gaiztetsi zindudazan! ¡Orain otzan-apala naz-ta, besuetan aftu nagixu! ¡Ama, nik goíotua erakutsi neutzun! ¡Emon egistazu maíasuna! ¡Ama, nire ondotik alde-eragin neutzun! ¡Aftu nagixu zeuk orain!

Baña andera eskekuak ezer eziñuan.

Mutilak, besuak luzatu ta usteridunaren oñai elduta, esan eutson:

—¡Iru bidaí efukitsuba ixan nayatzu! ¡Eskatu egi-jozu amari itz-egiteko niri, bein baño ezpa-da be!

Baña gixon usteriduna be ixilik eguan.

Umiak, intziriz ta negafez, baíro esan eban:

—¡Ara, indaírik eztaukot min ikaragari au jasateko

(sufritzeko)! ¡Azketsi (parkatu) ta itxi nagixu basora atzera juaten!

Eskaliak, orduban, eskuba umiaren buru-gañian ezafi ta beroni esan eutson:

—¡Jagi zadiz!

Eta usteridunak be buru-gañian eskuba ezafi ta esan eutson mutilari:

—¡Jagi zadiz!

Mutilak zutundu ta eskale ta usteridunari begiratu eutsen. Baña oneik ezeuken afezkero lengo itxurarik, Bakaldun eta Bakalemiarenak (Efeğiñarenak) baño.

Bakalemiak esan eutson mutilari:

—Auxe dozu ata, iru bidař sorosi (sokořidu) dozuna.

Eta Bakaldunak:

—Auxe dozu ama, malkuakin oñak garbitu dautso-zuzana.

Orix e sanda, bijok batera umia laztandu ta jauregira eruan eben.

Janzki edefakin apaindu ta buruban burestuna ta eskuban ufe-zigořa ezafi eutsoezan.

Ordutik auřera Ume Ixafa guturiko Bakalduna ixan zan.

Danoi efukija ta zuzentasuna erakutsi eutsezan.

Zorgin ankeřa bakaldeřilik (efeñutik) jauřti eban.

Eta eguřgiñari ta emaztiari bezuza (efegalo) edefak bidaldu eutsezan, bařa onen seme-alabai be.

Eta egindu bařija egin eban, abere ta txorijai kalterik ez egiteko esanaz.

Gustijoi mařetasuna, ontasuna ta efukija irakatsi eutsezan.

Txiruai ogija ta biloxik egozanai gorputza berotzeko
biaf ebezan janzkijak emoten eutsezan.


Oñetara, bakalderi atan dana zan bakia, dana zan
zorijona.


Oñatiño, etzan luzaro Bakalduna izan.

Bai, ba. Gastetan asko jasan (sufridu) biaf ixan
eban-eta, iru urte-bafu il zan.

Eta bere ondoren etofi zan Bakalduna etzan ain
zintzua ixan.









1927'gko Lotazila'ko 15'an
Verdes-Atxirika'ren etxian
amañu zan idazti au

8.00 LAURLEKO.